



uk

122. zenbakia / 2007 uztailak 2

getxoko XXXI. europar jazzaldia
uztailak 4-8 julio 2007
XXXI festival de jazz de getxo

getxo jazz



biotz alai plaza 21.30 2007 uztailak 4-8

asteazkena	1	TRIO ROMANO-SCLAVIS-TEXIER
lehiaketa: Thinktank (Holanda)		
osteguna	2	PAOLO FRESU-URI CAINE
lehiaketa: Andrew's Quartet (Errusia)		
ostirala	3	CHARLIE HADEN QUARTET WEST
lehiaketa: Mr. Chacho (Espainia)		
larunbata	4	LEE KONITZ NONET
lehiaketa: People Are Machines (Danimarka)		
igandea	5	CHUCHO VALDÉS QUINTET
Talde Lehiaketaren Irabazlea		

944 914 080

www.getxo.net

info@getxokultura.com

Getxo

BFA

EL CORREO

EUSKADI

EL CORREO

Getxo

bbk

BBK

BBK

BBK

AUVOL MOTOR

BBK

UK galeria > Pedro Agustin



Oraintsu etorri da gurera -zehazki Algortara- bizitzera Pedro Agustin (Castro Urdiales, 1979) argazkilaria. Zuzenbidea ikasi zuen Deustun baina gero Bartzelonara argazkilaria izateko ikastera joatea erabaki zuen. Orain horretan dirau profesional moduan. Denbora gehien kirol argazkilaritzak kentzen dio, izan ere, As egunkariko argazkilaria da bera. Baina aldi berean publizitate lanak ere egiten ditu eta Asier Gomez argazkiliaren laguntzailea ere bada. Azken honekin moda lanak egiten ditu. Bere lan pertsonalari buruz, paisaia, eta paisaia topatzen dituen objektuak interesatzen zaizkiola esan digu. Hala ere, azken boladan erretratuekin maiteminduta dabil. Man Ray argazkiliaren lana miresten duela ere aitortu digu



«Lagun andiyekin, orduak lasai» Euskal esaera zaharra

Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Kitesurf Ereagan, Asier Mentxaka.
- LEHEN ETA ORAIN. Barrika, 1999-2007.
- TALAI. Beste begirada bat eskualdeari.
- ERRETRATUA. Mari Carmen Saratxaga.
- HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- AGENDA.

SAKONEAN

- ALBUMA. Zaleen aurpegiak, Oskar Martinez.
- ARGAZKIA. Real Sporting Club.
- BERBETAN. Gonzalo M. Azumendi, Unai Brea.
- FOTOGRAFIA. Athletic, eup! Oskar Martinez eta Pedro Agustin.

KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Gaurik laburrena.
- MUSIKA. Getxoko Nazioarteko Jazzaldia. Diskoen erreseinak.
- LIBURUAK. Letren terrazak. Liburuaren erreseinak.
- KIROLAK. Ander Gardeazabal eskalatzailea.

EUSKARAZ

- ELKARRIZKETA. Monica Crespo.
- AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

- JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderen errezeta eta Itsaso Aranaren ardacaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Algortako Irntzi tabernara.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Doña Pacari omenaldia 1969an, Bittor Egurrola.
- AITORMENAK. Mirentxu Purroy, Maitane Nerekan.



30 Gonzalo M. Azumendi



11 Mari Carmen Saratxaga

Berbetan

47 urteko algortarra. Aspalditik dabil mundu osoko bazterretan argazki onenaren bila, izan ere, argazkigintza eta bidaiatzea dira bere pasioak.



34 Athletic



46 Monica Crespo



54 Mirentxu Purroy



23 Laubide elkartea

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bitor Egurrola,
Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itsaso Arana,
Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizara
Lepoan Euskara Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)


KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da.

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu

Kontraesanak

Hauxe duzue UKren 122. zenbakia. Ohiko atalak, lagun interesgarri mordoa... betiko beste UK bat. Baina beharbada ez hain ohikoa. Izan ere, gure irakurleak zaretanok jakin badakizue UKtarrok ez garela oso kirolzaleak (kirolariak bai ordea), edo akaso futbolzaleak zehaztu beharko genuke. Ez dugu futbola gorrotatzen, ez, baina gure uste apalean, arreta larregi eskaintzen diote komunikabideek kirol honi, eta horregatik hain zuzen ere, guk jeneralean ez diogu lekurik egiten aldizkarian. Baina hara non eta konturatu barik zenbaki honetan Athletic omnipresenteari 10 orrialde dedikatu dizkiogun! Orrialde bi Albumean eta beste zortzi Fotografia atalean. Athletic esaten denean gizonezkoen taldean pentsatzen da beti. Guk horiek ere atera ditugu UK honetan baina arreta hadiago eskaini nahi izan diegu, batetik, zaleei eta bestetik, emakumezkoen taldeari, tituluak eskuratzen duen bakarrari.

Kontraesana, Hiztegi Enziklopedikoaren arabera, esaten edo pentsatzen denaren aurkako egitea da. Bada horixe, geuk ere horrelakoak egiten ditugula.

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

no comment >



Un grupo de jugadores de la Segunda División Española portando una pancarta en Caracas en honor de Chávez y De Juana Chacabarro. La que dice la pancarta, sinceramente, no la hemos comprendido porque hay muchas faltas de ortografía.

La Razon egunkaria, 2007-06-24



EREAGA, 2007KO EKAINAREN 25A

Kitesurf / Orain dela 30 bat urte surfa gurera heldu zenean, euskaldunok harritura begiratzan genituen munduko beste puntatik euren furgoneta koloretsuetan etorritako nomada *ulehoridunak*. Apurka-apurka, kirol hura arrotza izateari utzi eta geu ere taula gainera igo ginen euskal kostaldeko olatuetan kulunkatzeari ekiteko. Urte mordoa joan da orduz geroztik eta tarte horretan surfak familia bereko hainbat kirol zabaldu ditu Euskal Herrian; besteak beste, bodyboard, kayaksurf, windsurf eta kitesurf. Azken hori da, hain zuzen ere, argazkilariak orriotara ekarri duena; orain dela urte batzuk pentsaezina zena. ○ / Argazkia: **Asier Mentxaka**

APELLIDUAK ABIZENDU!!!!

Zure izena edo abizena
euskarazko grafiaz
jarri gura duzu?

ERRAZ-ERRAZA DA!

5 euroren truke.

ARGIBIDEAK

ASESORES AIZPURUA AHOLKULARITZA ETXEA
Tel: 944609480

ASESORES PREMIUM AHOLKULARITZA ETXEA
Tel: 944802341

ASESORIA CONSULTORIA MI GOBELA AHOLKULARITZA ETXEA
Tel: 944316504

ASESORIA ZUBIETA AHOLKULARITZA ETXEA
Tel: 944640122

ASESORES GALEA AHOLKULARITZA ETXEA
Tel: 944609510


GESTORIA URALDE GESTORIA (AREETA)
Tel: 944640322

IBERKO (AREETA) AHOLKULARITZA ETXEA
Tel: 944300294

ASESORES SAFEL AHOLKULARITZA ETXEA
Tel: 944807049

ASESORIA GESTORIA PABLO L. de URALDE S.L.
AHOLKULARITZA-ETXEA eta GESTORIA
Tel: 944308560

GESTORIA ARDANAZ ANTUÑANO GESTORIA
Tel: 944800417



[lehen]



JOSE MARI PERIK UTZITAKO ARGAZIA

[orain]



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / BARRIKA 1999-2007

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > zenbat txori daude argazkian?

Leioa, 2007ko ekaina

Testua: **Xa2 Paya**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Airezko ozeano baten arrain ñaño, euli-txoriak eta hainbat ardi-laino, pintzelaren zipriztin, begien engaño, bistaz iritsi arren zeruetaraino, hobe da 1 eskuan zeruan ehun baino.

2

Hotzak hil baino lehen hegazti gaixoak xede hartzen dituzte lur bero gozoak, airean jartzen ditu urri zein martxoak zabaldu ohi dituzte lumazko besoak azpian gorde nahian 7 itsasoak.

3

Argazkia apaindu zaigu ixa txoriz, zenbat diren asmatu zenezake zoriz, nik esan dizut, baina zalantzan bazabiz, argazkian zenbatu pazientzia handiz edota irakurri bertsoak 4 aldiz.

* Doinua: Agur sagar beltzaran

argazkilaritza > Euskal Herriko datu basea osatu gura dute

Informazio gehiago: www.photomuseum.name

Euskal Herriko argazkigintzari lotuta dagoen guztia batzeko helburuagaz, *Isurkide* proiektua martxan ipini du Zarauzko Photomuseumek. Proiektuaren garapenerako hiru urteko epea aurreikusten dute arduradunek: artxiboaren eraketa lehenbiziko urtean, behin-behineko idazketa egitea eta informazio grafikoa batzea bigarrenetan eta, azkenik, behin betiko idazketa egitea hirugarrenean. Horretarako, gaiaren inguruan informazioa eduki dezaketen herritarren laguntza eskatu dute. Ondoren, eskuratutako informazioa sei talde handitan bereiztuko dute: autoreak, erakundeak, mugimenduak, argitalpen monografikoak, aldizkako argitalpenak eta ekintzak. Lortzen duten informazioa etorkizunera begira oso garrantzitsua izan daitekeela uste dute ekimenaren bultzatzaileek, batez ere, unibertsitateentzat eta ikerlariarentzat. ○

osasuna > Uribe Kostarentzako ospitalea eskatu du Legebiltzarrak

Uribe Kostan osasun zentro berria eraikitzearena aspaldiko kontua da

Eskualdeko osasun beharrianak asetzeko Uribe Kostan ospitalea eraikitzea eskatu du Eusko Legebiltzarrak. PPK egindako eskariari erantzunez, PSEk eta hirukoak (EAJ, EA eta EB) eskualdean osasun zentroa ipintzeko zuzenketa transakzionala adostu dute. Akordioaren arabera, ospitaleratuta egon behar den jendearentzako ohe gehiago edukiko du ospitale berriak. Uribe Kostan osasun zentro berria eraikitzearena aspaldiko kontua da; izan ere, PSEk eta hirukoak 2007 eta 2012 urteen artean osasun azpiegiturak modernizatzeko ituna sinatu zuten. PP, ordea, ez dago erabat ados sinatzaileek hartutako erabakiagaz, bere esanetan, bereizmen handiko zentroa besterik ez delako izango, ospitaleratzetik behar ez duen kirurgiagaz eta gaixoak atenditzeko oherik ez dela egongo deitoratu du. ○

saiaz getaria



HOTEL

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa



..harria



...lehen garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

[talaia]

turismoa > bost transatlantiko geldituko dira Getxoko kaian



Boudicca itsasontzia Getxoko kaian

Uztailaren 3az geroztik mundu osotik etorritako ehunka turistek Getxoko inguruak beteko dituzte; izan ere, bost izango dira data horretatik aurrera Euskal Herria bisitatuko duten transatlantikoak. Lehenbizikoa *Black Prince* itsasontzia izango da. Getxora datorren bigarren aldia izango da honakoa eta urrian berriz bueltatuko da. Uztailaren 4an, *Spirit of Adventure* izango dugu gure artean, ardo ardatz daukan proiektu batez: *Espainiako eta Portugalgo mahastiak*. Datorren eguaztenean Bilbon amaituko dute bidaiia. 5ean, berriz, *Prinsendam*-en txanda izango da eta ondoren, uztailaren 20an, *Topaz* barkuak egingo du agerraldia. Azkena heltzen, *Oceana* transatlantiko erraldoia izango da. 2.098 bidaiarientzako lekua dauka; hemendik pasatu den bigarren ontzi handiena. Halere, Bilboko portuko agintariek jakinarazi dutenez, data horiek trafikoaren arabera alda daitezke, gure itsasoetatik ibiltzen den barku kopurua garai horretan nabarmen handitu egiten da eta. ○

birziklatzea > pilak batzeko edukiontzia Uribe Kostan zehar



Erabilitako pilak batzeko 200 bat edukiontzi ipiniko ditu eskualdeko lantegi eta dendetan

Pilak batu eta horiek birziklatzeko sistema martxan ipiniko du irailtik aurrera Uribe Kostako Mankomunitateak. Horretarako, 200 bat edukiontzi ipiniko ditu Barrika, Berango, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizko lantegi eta dendetan (deialdia ireki dute horrelakorik jaso gura duten tokian tokiko arduradunek ontzia eska dezaten). Jasotze zerbitzua doakoa izango da eta Erandioko Recypilas lantegi espezializatura eroango dituzte hilero pilok bertan trata ditzaten. Hori guztia sustatzeko, pilak dituzten forma ezberdinen inguruan eta daukaten erabileren inguruan informatuko du mankomunitateak, baita horiek birziklatu behar diren garrantziari buruz ere. Halaber, pilak zabortegetan sor ditzaketen arriskuen berri emango du: suteak, erreakzio kimikoak, kutsadura etab. ○

[erretratu ia]



“Gazteen artean egoteak bizia ematen dit”, dio Mari Carmen Saratxaga leiozarrak

Mari Carmen Saratxaga > saltsa guztien perrexila

Bere argazki bilduma eskuan duela aurkitu dugu Mari Carmen Saratxaga. Pailazoa, moja, troglodita... ez dago berak jantzi ez duen moztarrik, nahiz eta asko gelditzen zaizkion oraindik. 23 urte zituela Castrotik Leioara etorri zen eta 53 urte bete dituen herrian ezagun egitea lortu du: *“Hasieran batzuek bazterten ninduten, nire izaeragatik; orain denek agurtzen naute, kritikatzeko nindutenek barne”*. Txokolata prestatzen, jaitzierako karrozak atontzen, tortilla txapelketan parte hartzen... jai giroa alaitzeko lan handia egiten du Mari Carmenek. Hala ere, jaiak lehengo modukoak ez direla aitortu digu pena handiz: *“Udalari diru-laguntza gehiago ematea eta gure proposamenak kontuan hartzea eskatuko nioke; herritarrei aldiz, gehiago inplikatzeari”*. Zelako Tajada koadrillaren sortzaileetako bat da eta gazteen artean ondo baino hobeto moldatzen da: *“Gazteek beste lagun bat bezala hartzen naute; nagusiak dira gehien harritzen direnak”*. 16 urte zituenean futbol liga federatua jokatu zuen, garai hartan emakumezkoak futboleko ikustea erraza ez bazen ere: *“Gizonezkoak gure titiak ikustera etortzen ziren partiduetara; hala ere, guk aurrera ateratu genuen taldea, garai txar horietan ondo pasatzeko geneukan aukera bakarra zen-eta”*. Luzerako dauka Mari Carmenek: *“Gazteen artean egoteak bizia ematen dit”*. Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan **Reprografia**
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •
Karteak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
ermarkaketak •



Oporrak Getxon

Pasa den urtean Getxoko Turismo Bulegoetatik **36.610 lagun inguru** pasa ziren; **hamaika dira** bertan jaso zituzten aisialdirako eskaintzak, **aurten ere beste hainbeste** eskuratu ahalko dituzte

Dagoeneko askok darabilzkigu oporrak buruan. Batzuek herritik kanpo egingo ditugu, beste batzuek herria "zaintzen" lotu beharko dute, baina gurera oporretan datozenak ere badira; gero eta gehiago gainera. Getxon lanari eta negoziari lotutako turismoa nagusi bada ere, azken boladan aisialdiaz eta ingurunearen edertasunaz eta historiaz gozatzera datozen lagunen kopuruak gora egin du.



Argazkian, Galeako gotorlekua

Datozenek (eta lotzen direnek ere) gure herrian dituzten gozagaiak eta eskaintza ezagutzeko Getxoko Turismo Bulegora (GTB) hurbildu gara (han eskaintzen ez dituzten gozagaiak ere baditu herri honek, horiek bidebidorretan galtzean aurkituko dituzte).

Bi turismo bulego daude udalerrian, nagusia Ereaga hondartzan eta mugikorra delakoa Bizkaiko Zubian. Bertan bidaiak antolatzen zerbizua eskaintzen dute, ibilaldiak eta bidaiak proposatzen dituzte eta egonaldirako aukerak ere azaltzen dituzte. Ekitaldi, bisitaldi, irteera, egonaldi eta beste hainbestetarako erreserbak (telefono, fax, posta edota sarearen bidez) egiteko aukera ere eskaintzen du GTBk.

Udalerrian ezagutzeko proposatzen dituzten gune interesgarrien artean hurrengoak daude: gizadiaren ondare izendatutako Bizkaiko Zubia, Portu Zaharra, Abra, Andra Mari Eliza, Galeako gotorlekua, Aixerrota, udal jauregia edota Areeta, Neguri eta Algortako Portu Zaharra bitartean XIX. eta XX. mendeetan erakitako euro-

par estilo arkitektoniko askotako jauregi eta etxetzarrak, zein Bolueko hezegunea eta Galeako muturra, Getxo-Aquarium... Horrez gainera, aisialdirako hainbat kirol ekintza egiteko gonbitea luzatzen dute, hala nola: urpekaritza, abentura kirola, hipika, golfa, bela... eta garaian garaiko kultur eskaintzaren berri ematen dute. Hainbat

«Erreserbak telefonoz, faxez, postaz edota sarearen bitartez egin daitezke»

programa turistiko ere prestatzen dituzte, besteak beste: hegalaldi panoramikoak (1h bi pertsonentzako 270 eurotik gora), Getxo Taxi Tour Bisitaldi turistikoa (autoz herria ezagutzeko aukera), zein aurten indartsu bultzatu duten Itsasoratzea programa. Azken hori belaontzian irteerak egitean

datza, ibilbidearen eta iraupenaren (eguneko, aste-akabukoa, aste osokoa...) arabera prezioa daukate. Amaitzeko, udalerritik kanporako bisitak ere eskaintzen dituzte (Guggenheim, Bizkaiko kostaldea, Errioxako ardandegiak, Biarritz, Santander etab.). Iaz GTBetatik 36.610 lagun pasa ziren (2005ean baino ia %25 gehiago), 14.500 bat Euskal Herritik kanpokoak. ○

Datu batzuk

- **Non:** Ereagako hondartzan; mugikorra Bizkaiko Zubian.
- **Udako ordutegia:** 10:00-20:00. Bizkaiko Zubiko TB: 10:00-14:00 eta 16:00-20:00
- **Harremanetarako:** 94 491 0800
www.getxo.net / infoturismo@getxo.net

1,12 milioi euro

bideratuko dituzte **Errekagane** kalea konpontzeko



Egitasmoa egiteko 16 asteko epea ipini du Udalak

Iragan berri den hilean jakinarazi zuen Tokiko Gobernu Batzordeak onartuta dagoela dagoeneko Erromoko Errekagane kalea zaharbertzeko egitasmoa. Lanotarako aurrekontua 1.120.000 eurotan zehaztu dute eta honekero lehiaketa publikora iritenda egon liteke lanok gauzatzeko ardura.

Egitasmoa egiteko 16 asteko epea jarri dute Udaletik; horrenbestez, datorren urte hasierarako lanok amaituta egon litezke. Egitasmoa garatu baino lehen kalearen egoeraren ikerketa teknikoa egin zuen Udalak, eta azterketaren txostenetik ondorioztatu dutenez, noiz edo noiz agertzen diren pitzadurak zein galtzadaren hondoratzeak kale azpiko hutsegiteek eta deformazioek eragiten dituzte. Beraz, eusteko hormak ez ei duenez arrakalakaz-eta zerikusirik (udal txostenaren arabera), inguru

horretan osoko berriztatzea proposatu dute. Hala, kale azpian euskarri aproposa ipintzea aurreikusten dute.

Orduko indarreko alkate Iñaki Zarrakoak adierazi zuenez: "zoru osoa, espaloiak eta galtzada aldatuko dira; saneamendu sarea berriztuko da; erreka eta kalearen arteko gunea babesteko baranda bat jarriko da; hiri altzari berriak ipiniko dira eta zuhaitzak landatuko dira". Zarrakoak aipaturiko baranda errekatik metro erdira ipiniko dute, eta horren alboan 3,5 m-ko bidea egongo da. Etxebizitzaren alboan lerroan aparkatzeko 2 m-ko tartea egongo eta jarraian gutxienez 2,9 eta gehienez 5,8 m-ko espaloia egingo dute.

Zaharbertze lanen handitasunagatik zatika egingo dituzte, zirkulazioan kalte larriak ez sortzeko asmoz. ○

MAIDAGANEKO IGAROBIDEA

LURPERATZEKO BAIMENA

Maidaganeko metroaren igarobidea edota pasonibela lurperatzeko kontratuak baimendu ditu Eusko Jaurlaritzak. Lanen aurrekontua 24.625.950 eurotan finkatu dute. Bestalde, lurperatze horrek Bidezabalgo geltokian maiztasun-aldaketa sistema kentzea ekarriko du, eta sistema hori eraikiko duten Ibarbengoako geltoki berriak ipiniko dute. Lurperatuko duten metro ibilbidea 1.250 m-koa da eta lanok gauzatzeko epea 30 hilekoa izango da.

MIRAMAR JAUREGIKO LANAK DESEGIN

BEHARKO DITU UDALAK

EAEko Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak kultur ondasun izendatutako Miramar jauregitxoan egindako zaharbertze lanak desegin behar omen ditu Getxoko Udalak. Getxoko Udalak 2001ean eman zuen eraberritze lanak egiteko baimena. Orduetik 3 urtera lanetarako baimena ezeztu zuen epai batek eta lanak "ilegalak" zirela adierazi zuen hurrengo arrazoiengatik: "etxearen lau aldetatik hiru itxuraldatu dituzte, jatorrizko hutsunerak batzuk ere bai, eta baita sarrera nagusirako bideak ere". Epaiari ez zioten kasu handirik egin ugazabek, eta iaz Administrazioarekiko auzien epaitegiak Getxoko Udala izendatu zuen arduradun subsidiario legez, "Udalak atera beharko ditu lehiaketa publikora lanak". Orduan Udalak ez ei zion eskaerari kasurik egin, baina orain beste epai honek behartuko omen du lanok gauzatzera.

GOBELA KIROLDEGIA ITXIKO DUTE ABUZTUAN

Hurrengo hilean Gobela kiroldegia itxia egongo dela jakinarazi du Getxoko Udalak. Pasa den urteko erabaki eztabaidatuari eutsi dio aurten ere Udalak; izan ere, iaz auzotarrak Faduraraino joan behar izateaz kexatu ziren. Halere, iragarri berri dutenez Gobela itxita egongo da aurten ere bai.

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
berrikuntzak

- igeltzeritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illeta kalea 1 • ALGORTA

A Arasa

Sukalde eta Komunitaroko Ekipamendu Osoa
Barnekaldean zaharbertzeak eta dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

PAYAdoreak

bertso ikuskizunagaz bideo bat osatu dute Koska Irratikoek

Pasa den hilaren 7an Xabi eta Fredi Paya anaiek eta Wilson Saliwoncyk PAYAdoreak izeneko ikuskizuna eskaini zuten Algortako Piper's Irish Pub tabernan. Payadorea esaten diote gitarraren laguntzaz diharduen bertsolariari Argentina, Bolivia, Txile eta Uruguain. Bada Saliwoncyk payadorea argentinarragaz batera bi payatarrek jardun zuten eta benetan emanaldi polita eta hunkigarria es-

«Payatarren eta Saliwoncyk payadorearen bideoa Youtube webgunean dago ikusgai»

kaini zuten hiru bertsolariak. Koska Irratiko langile finek ahalegin berezia egin eta ikuskizuna laburbiltzen duen 8 bat minutuko bideoa osatu dute eta Youtube webgunean ipini dute guztion gozagai. Horrez gainera, «txoritxu» batek aurreratu digunez, Bertso Eskolakoakaz batera ekimena DVD euskarrian jartzeko asmoa ere azaldu dute Koska Irratitik. ○

Lotura:
www.youtube.com/watch?v=j12TCG1XLO8
edo www.koskairratia.com



L. Olaso eta A. Diego > THT Design-eko irudigileak

“Inguru batek orain 70-80 urte zeukan itxura zuri-beltzean margoztea gogoko dute Udalek”



Harremanetarako: 629 208 170

THT Design enpresako buru eta horma-irudigileak dira Luis Olaso eta Aaron Diego getxoztar gazteak, hurrenez hurren 20 eta 23 urte. Babilergo artistikoan elkar ezagutu zuten eta elkarregaz margozten hasi ziren. Dagoeneko gure udalerrietako hamaika horma atondu dituzte mural erraldoiak.

—Zelan sortu zen egitasmoa?

—Horma-irudiak egiteko eskaerak bilatzen hasi ginen, hasieran partikularrentzat behar egitea pentsatu genuen, baina konturatu ginen negozioa udalarentzat horma-irudi handiak egitean zegoela. Enpresa urte hasieran sortu genuen, baina honetan hasi ginela badira urte pare bat, lokalak-eta atontzen ibili ginen. Hastapenetan denetarik apur bat eskaintzen genuen, orain muralakaz lanez goraino gabiltza eta ezin dugu bestelako eskaririk bete. Etorkizuna? gure eskaintza zabaltzea baino, gure lan-eremua da zabaltzea nahiko genukeena; dagoeneko bagabiltza Madril, Bartzelona edota Valentziatik zenbait lan egiten. Udalarentzat egingako lehen lana Lekeition izan zen. Pauso hori gauzatzea, udalek kasu apur bat egitea asko kosta zitzaigun; behin hori lortuta Bizkaian hainbat lan egin dugu: Berango, Erandio, Barakaldo, Sondika, Getxo institutua (aspaldi)...

—Udalen jarrera aldaketa (arte, horma-irudiak kalera erotea-eta) zelan bizi duzue?

—Graffitigileen kontra badabilta oraindik ere, eta amorru handiz. Alabaina, hau beste kontzeptu erabat ezberdina da, hau artea da, jendeak ikus dezakeen irudi handi bat kalean ipintzea. Guk graffitiak ezik beste edozer egin dugu. Graffitiaren alboko konponbide bat izan daiteke, inguru bat atontzeko edo apaintzeko ahalegina da obra erraldoi bat egin behar barik. Bestalde, udalen jarrera aldaketa ez da bat-batean eman, apurka baino. Lotsakor hasi ziren baten batzuk, eta gero emaitzak ikustean orduan sartu dira ausardia apur bat gehiagaz; baina kostatu zaie, bai, eta batzuek oraindik lehengo jarrearari eusten diote! Pentsa gure herriko udalak, Bizkai osotik apurrenetakoa izango da, oraindik ez digu harrerarik egin nahi izan.

—Zein motatako lanak eskaintzen dituzue?

—Eskaintza oso zabala da gurea, irudiak “kartara” egiten ditugu. Bezeroak eskatzen duena gauzatzen dugu, aholkuak emanda. Oso gogoko dugu paisaien irudiak eskaintzea, horiek falta baitira hirietan! Natura dugu faltan! Ostera, udalen artean modan dago udalerriko zuri-beltzeko antzinako argazki-irudiak ipintzea; inguru horrek orain 70-80 urte zeukan itxura horma-irudian azaltzea gustatzen zaie, zuri-beltzaren lehen-

«Horma-irudiak egin ditugu Berangon, Erandion, Barakaldon, Bartzelonan...»

orainaren efektua eta guk tamaina handian horma kopiatzen dugu. Gure estiloa oso berria da eta orain artekoagaz alderatuz nahiko ezberdina. Izena ere ipini diogu, korronte artistiko bat sortu dugula uste dugulako, “ponismoa”. Guk gauzatzen dugun estiloa da, geurea. Artea oso baliogabetua dagoen garaio-tan, askotan arte kritikoa izan behar duzu arte ulertzeko, sarri ulergaitza da, bada guk mezu jakineko artea egin gura dugu, eta edozeinek goza dezakeen artea egin nahi dugu. ○

Dantza eta musika

Aurtengo Nazioarteko Folklore jaialdian, hilak 19-21, Mexiko eta Txina dira gonbidatuak



Argazkian, Itxartu dantza taldea

Udalerriko Itxartu dantza taldeak eta Kultur Etxeak bultzatzen duten Nazioarteko Folklore jaialdiak dagoeneko prest dauka egitaraua. Garagarriaren 19tik 21era ospatuko den jaialdian aipaturiko dantza talde getxoztarrak, Mexikoko ballet folkloriko batek eta Txinako kantu eta dantza konpainia batek eskainiko dituzte emanaldiak. Ekitaldiaren aurkezpen oharrean adierazten denez, XXIII. urtea betetzen duen ekimenaren helburua hurrengo da: “Herri desberdinen ohiturak ezagutzea ezinbestekoa dugu beren nortasuna ulertu ahal izateko. Jaialdia ezezagunak zaizkigun musika, dantza, jantzi eta ohituretara hurbiltzeko aukera aparta da...”. Hiru gauetan (22:00) Biotz Alai plazan hiru herrialdeko hiru musika eta dantza ikus-

kizunez gozatzeko aukera egongo da (sarrera doan). Lehenengo egunean (hilak 19) mundu mailan saritutako Colimako (Mexiko) unibertsitateko Ballet folklorikoaren txanda izango da. Bigarren gauean etxekoaren txanda izango da. Gaur egun 40 dantzarik osatzen duen taldeak aspalditik dihardu tradizio zaharreko dantzak berreskuratzeko ekinean, eta horregaz batera antzinako soinekoak, musika, musika-tresnak etab. Qiandongnan (Txina) kantu eta dantza konpainiak emango dio amaiera jaialdiari hilaren 21ean. Azken horien ekimenez Miao eta Dong etnien dantzakaz eta kantuakaz gozatu ahal du Biotz Alai plazara hurreratzen denak. Oro har, 3 herrialdeko folklore aberatsa gozagai izango duzue. ○

BERTSO JAIALDI MUNDIALA HILAREN 11N

Balkoitik Balkoira saioari lekukoa hartzen dio urtero Bertso Jaialdi Mundialak. Bertsozaleak gozatzeko hamaika aukera dauka sasoi honetan eta Biotz Alai plazan (Algorta) egiten den jaialdia galdu ezineko hitzordu horietako bat da. Hilaren 11n, eguaztena, da zita gaueko 10:00etan. Aitzol de Kastro gai jartzaileak Andoni Egaña, Jon Maia, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga eta Fredi eta Xabi Paya anaiek bertsoan gidatzeko ardura izango du.

BIGARREN ESKUKO LIBURUEN AZOKA SOLIDARIOA HILAREN 12-14 BITARTEAN

Aurreko urteko harrera ona dela eta, aurren ere Bigarren Eskuko Liburuaren Azoka antolatzea erabaki du Kultur Etxeak. Algortako Biotz Alai plazan lekutuko dute azoka uztailaren 12tik 14ra (12:00-14:00 eta 17:00-21:00) eta liburu, aldizkari edota bideo erabiliak erosteko aukera egongo da bertan. Gutxi gorabehera ale bakoitzak euro bat balioko du eta lortuko duten dirua Gobernu Kanpoko Erakunderen baten egitasmoren batera bideratuko dute.

SANINAZIOETARAKO KONTZERTUAK IRAGARRI DITUZTE DAGOENEKO

Algortako San Inazio jaietarako maketa lehiaketa antolatu zuen Jai Batzordeak eta dagoeneko eman dute jakitera zeintzuk lortu dituzten lehenengo hiru postuak, irabazletik hasita hauek dira: Rise to Fall, El Proyecto Brundel-Mosca eta Zaunka. Horiek talde nagusiakaz batera joko dute jaietako egun bakoitzean. Hala, azken orduko aldaketarik ezean, aipaturikoez gain hurrengo taldeek joko dute saninazioetan: Nuevo Catecismo Catolico eta Frontkick (hilak 28), Oliba Gorriak eta Orreaga 778 (hilak 29) eta Anestesia (hilak 30).



Basurto

Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Haizea Hormaetxea eta Igor Euba > dantzariak

“Behar beste baloratzen ez gaituztela uste dugu, epaile gehienak **gipuzkoarrak** dira eta”

Joan den ekainaren 17an, Euskal Herriko 31. Dantza Txapelketa egin zuten Segurako (Gipuzkoa) Baratze pilotalekuan. Han egon ziren, besteak beste, Leioako Igor Euba eta Haizea Hormaetxea. Ez zuten irabazi, baina duda barik, Bizkaiko jota ederto zabaltzen ari dira Euskal Herrian barrena. Horrez gain, erromeriatan dantza egiten gozatzen dutela azpimarratu dute.



Txapelketetan Bizkaiko jota dantzatzeko Haizeak eta Igorrek

—Noiztik zabiltzate jota txapelketetan parte hartzen?

— (Haizea) 12 urtera arte dantza taldean ibili nintzen, baina jota dantzatzeko mutil bat aurkitu eta ordutik txapelketetan baino ez dut dantzatzeko. Askotan hobe da horretan bakarrik jardutea, taldean entsetzen duzunean ez da-eta teknika jagoten eta gauza asko airean geratzen dira. Bederatzi bat urte daroadaz daborduko honetan eta zenbat eta txikiagoa izan hasten zarenean hobeto. Berandu hasi nintzela uste dut.

— (Igor) Neuk ez daroat urte bat bez! Urrian hasi nintzen honegaz. Aurretik, baina, aurreku txapelketetan parte hartzen nuen. Urduri nago pauso berriak eta oraingoz baldar ikusten dut neure burua, zeharo ezberdina delako jotak ala aurrekuak dantzatzea.

— (H) Hala eta guztiz ere, daroan denbora apurrean asko aurreratu du eta puntuazio nahiko onak lortu ditugu.

—Zuek Bizkaiko jota dantzatzeko duzuen bakarrak zarete.

— (H) Gurea erakutsi gura dugu. Behar beste baloratzen ez gaituztela uste dugu, epaile gehienak gipuzkoarrak dira eta. Gipuzkoan teknika garrantzi handiagoa ematen diote, hotzagoak dira, baina guk gehiago adierazten dugu dantzaren bitartez, indartsuagoak gara. Gu txapelketara gozatzen gara. Gure ustez, Bizkaiko jota

ikusgarriagoa da, nahiz eta jendeari orokorrean Gipuzkoakoa gehiago gustatu.

—Txapelketak onuragarriak al dira folklorearentzat?

— (I) Erromerian ez dira pausoak hainbeste markatzen, baina txapelketak gure ohiturak gordetzen laguntzen du. Halere, jende gazteak ez du dantzatzeko.

— (H) Egia da mugak ipintzen dituela, erromeria batean gu ikusten gaituztenean, jendea dantzatzeko orduan lotsatzen delako. Antzina informalagoa zen dena. ○

Zilborhestea

Pertsona txikiak **leku gehiago eta hobea** behar dute Solasguneren arabera



Umeentzako hiri egokia sortu gura dute Leioan

Leioako umeentzako herriko dendak segurtasun puntuak izateko proposatu dio Solasgunek Udaleko Hezkuntza Sailari eta bion artean proiektua aurrera eramatea adostu dute, Leioako Denda Batuen Elkartearen laguntzagaz beti ere.

Etiketari eskolara eta alderantziz bakarrik doazen umeek esparru seguruak izatea gura du *Leioarako ez hain txikiak* (ESKOLA AGENDA 21) programaren barruan dagoen Zilborhesteak. Horretarako, ezinbestekoak dira udalerriko dendak eta horiek identifikatuko dituzten kartelak ipiniko dituzte. Kalea umeen beharrezkoak egokitu gura dute proiektuaren bultzatzaileek, jokorako berreskuratzea alegia.

Hainbat dira proiektuagaz bat egingo duten dendak: Kopi Leioa, Jean Paul Moda, Ondizko Gozoki, Tango Complementos, Eleixalde loradenda, TUYO Modak, Maribe lurrindenda, Kopiona, Canada Niños, Linsay garbidenda, Orixe autoeskola, Mapfi paperdenda, Elexalde burdindenda, Ikea optika, Tris liburudenda, Itziar jostailudenda, Titare mertzeria eta Sorgiñe. Udal erakundeek ere parte hartzeko asmoa agertu dute: Udaletxea, Sakoneta kiroldegia, Kultur Leioa eta Behargintza.

Eguneroko jardueran (erabakiak, ekin-tzak...) umeak kontuan hartzea da egitasmoaren helburu nagusia, hau da, txikientzat egokia den hiria sortzea. ○

EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK GURASOENTZAT

12 urte beherako umeen gurasoei; irakasleak ez diren ikastetxeetako zein haurtzaindegietako langileei; errenta baxuak dituztenei; kirol edo kultur elkarteetako kide zein beharginei eta bere menpean bost langile baino gutxiago dituzten merkatariei euskara ikasteko dirulaguntzak eskainiko dizkie Euskara Zerbitzuak. Laguntza horiek jaso gura dituztenek gutxienez eskolen %85 jaso beharko dute eta maila bat gainditu. Izapideak Euskara Zerbitzuan bertan egin behar dira: uztailaren 9ra arte neguko ikastaroentzako eta urriaren 1etik 10era arte udakoentzako.

Informazio gehiago: 94 607 25 76

IKEA MENDIKO ERREPIDEA KONPONDUKO DUTE

Ikea mendira igotzeko erabiltzen den errepidearen konponketa lanak fasea egingo ditu Leioako Udalak. Gaur egun erabilgarri dauden aparkalekuen kopurua handitzea da proiektuaren helburu nagusia, berriak baterian murgotuz. Gainera, oinezkoentzako esparrua ere handitu gura dute. Bizilagunei ahalik eta estropoz txikiena eragiteko moduan burutuko dituzte konponketak.

UMEEN ZAINKETA ETA PARTIKULARRAK EUSKARAZ

Berdinean euskaraz kanpainaren barruan, umeak zaindu edo klase partikularrak euskaraz eman ditzaketan pertsonen zerrenda eskainiko du Leioako Euskara Zerbitzuak. Gauza bera egingo du udalerriko elkartei aisialdi eta kirol monitore zein aurkezle euskaldunen zerrendak eskainiz, horiek burutu behar dituzten jarduerak edo ekintzak euskaraz egin ahal izateko,

Informazio gehiago: 94 607 25 76

Zure publikitatearen haren
Zure publikitatearen haren
Zure publikitatearen haren

94 491 13 37

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta IMPRESIO DIGITALAK egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

[erandio]

Iskandar Hamawy > Ategorri-Tartanga institutuko irakaslea Ikasgai batzuk **ingelesez** jasoko dituzte Ategorri-Tartangako ikasleek

Hizkuntzari dagokionez, proiektu berria martxan ipiniko du Erandioko Ategorri-Tartanga institutuak, zehazki Ikus-entzunezkoen sailak. Hain zuzen ere, datorren ikasturteik aurrera ikasgaiak euskaraz eta gaztelaniaz gain, ingelesez ere jasotzeko aukera edukiko dute ikasleek. EAEn mota horretako ikasketak egiten lehenbiziko lanbide-heziketako ikasleak izango dira Erandiokoak.

Gaur egungo gizarte globalizatuan, berebiziko garrantzia dauka hizkuntzak menperatzeak. Daborduko ez da nahikoa elebiduna (euskara eta gaztelania) izateagaz; hirugarren hizkuntzaren bat jakitea askotan nahitaezkoa bihurtu da eta lana bilatzerako orduan. Gaur egungo eskola eta ikastetxeek, beraz, ikasle eleantzik hezteko proiektua abian ipini zuten orain dela urte batzuk eta klase batzuk beste hizkuntza batzuetan ematen hasi ziren (kasu gehienetan ingelesez).

Emaitzak positiboak izan direla ikusita, Lanbide Heziketan ere gauza bera egitea erabaki du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta datorren ikasturtean Erandioko Ategorri-Tartanga institutuko ikus-entzunezkoen arloko ikasleek ikasgai batzuk ingelesez egin beharko dituzte (gainerakoak eus-



Argazkian, proiektuan parte hartuko duten Alfonso Vallejo eta Iskandar Hamawy irakasleak

karaz eta gaztelaniaz izango dira). *“Ikasleek First Certificate, Hizkuntza Eskolako 3. maila eduki edota institutuan bertan azterketa bat pasatu beharko dute eskolak jaso ahal izateko”*,

«Ikasleek euren ingeles maila erakutsi beharko dute eskolak jaso ahal izateko»

azaldu du Iskandar Hamawy irakasleak.

Bestalde, irakasleek beraiek ingelesez trebatzeko ikastaro bat eman behar izan dute

eskolak hizkuntza horretan eman ahal izateko. *“Horrez gain, uda honetan film eta bideo ikastaro bat egingo dugu AEBetan, Maineko unibertsitatean, hain zuzen ere”*. Halere, klaseak emateko orduan erritmoa motelagoa izango dela onartu du Iskandarrek. *“Errespetu gehiago ematen du, inprobisatzea gaxagoa delako. Gainera, eskatzen zaigun lana askoz handiagoa da. Eskola normala prestatzeko ordu bi behar badituzu, ingelesez agian hiru; saiatu, saiaturako gara behintzat”*. ○

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... **902 54 08 54**

www.arlan.biz

ZIPIRIÑE ESKOLA KONPONTZEN HASIKO DIRA AURTEN

Zipiriñe eskolako konponketa lanak hasiko dituzte urte amaieran. Arinago hasteko asmoa izan bazuen ere, eginbeharreko izapide administratiboak direla-eta, lanak atzeratu behar izan ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Behin lanak amaituta, Haur Hezkuntzako ikasleek eraikin berria edukiko dute, zaharrari itsatsita. Halaber, ikasle guztiek jantoki berria edukiko dute. Proiektu berean, etorkizunean kiroldegi bat eraikitzea aurreikusten da, hala nola gimnasioa handitzea. Gainera, eraikin zaharra ere berritu gura du planak: teilatua konpondu, leiho berriak jarri (azken hori irailean bertan egingo dute)...

UZTAILEAN ZEHAR GAZTEENTZAKO UDALEKUAK

Uztailen zehar, adin guztietako gazteei zuzendutako udalekuak antolatuko dituzte Sopelan. Horrela, 4 eta 12 urte bitarteko umeek txanda bi edukiko dituzte: uztailaren 2tik 13ra arte lehenbizikoa eta uztailaren 16tik 27ra arte bigarrena. Bestalde, 13 eta 17 urte bitarteko nerabeek ere udalekuakaz gozatzeko aukera edukiko dute uztailaren 16tik 22ra bitartean. Besteak beste, surf, kayak, mountain bike, trekking, eskalada eta yoga praktikatzeko aukera edukiko dute.

HONDARTZAN IRAKURTZEKO AUKERA EDUKIKO DUGU UDAN

Uztailaren 6an, 13an, 20an eta 27an, Irakurtzeko Txokoak antolatuko ditu hondartzan Uribe Kostako Mankomunitateak. Euria eginez gero Sopelako Hall Kulturallean izango dira. Ondo etorriak irakurzaletasuna bultzatzeko balio duten ekimenak!

Karmengo Jaiak

Sanpedroei agur esan bezain laster badaukagu zer ospatu ostabere!



Karmen jaietako giroa

Uztailaren 13tik 21era arte Karmengo jaiak ospatuko dituzte Sopelan. Oraindik sanpedroetako ajetik errekupeatzeko aukerarik eduki ez badute ere, ospakizunen zorbioan murgiltzeko aukera ez dute galduko sopeloztarrek, oraingoan Larrabasterran.

Oraingoan ere, musikak eroango du protagonismo guztia eta punta-puntako taldeakaz gozatzeko aukera edukiko dugu: Kauta, Liqueu, My Sweet Torment, Kaotiko, Celsius 32, Los Indomables... Erromerietako giroa ere ziurtatuta egongo da Dindrots, Disko Festa eta Amaiurregaz. Horrez gain, Zo-Zongo Perkushow eta Rio

Samba Showek egiten dituzten urrutiko soinua entzuteko aukera edukiko du Larrabasterrara hurbiltzen denak.

Gaztekoen ere euren lekua edukiko dute Haur eta Gazteen Parkean. Bertan, squash, tirollina, jumping praktikatu ahal izango dute; eta errokodromoan zein puzgarietan ibili.

Jatekoa eta edaria garrantzitsuak izango dira jai egunetan zehar. Uztailaren 15ean, esaterako, marmitako txapelketa egingo dute eta uztailaren 16an, Karmen egunean, saihets, txistorra, buzkentz eta sagardo dastaketa egongo da, trikitixaren musikak alaituta. ○

Urko mendi taldea > 27 urte mendizaletasunaren alde

“Umeek domeketan ez daukate mendira joateko **goizetik altxatzeko** gogorik”



Urko Mendi Taldearen aspaldiko argazkia

Orain dela 27 urte erabaki zuen Sopelako lagun talde batek Urko Mendi Taldea mar txan jartzea. Bospasei helduk osatzen zuten orduan taldea eta gainontzekoak umeak ziren, 30 bat gutxi gorabehera. “*Gaur egun 15 bat heldu gara eta umeena gaxxagoa da*”, deitoratu du Javi Manzisidor elkarteko diruzainak. “*Orduan autobusez joaten ginenean eta onain autoz joaten gara. Hilean behin, hastapenetan etortzen zirenean gunasoak gonbidatzen ditugu, eta batzuk etorri egiten dira*”.

“*Nire ustez ume gutxiago etortzearen arrazoia zera da: domekan mendira joateko goizeko zortzietan, aurreko egunean goizetik sartu behar dira ohera eta ez dute gura. Gunasoek ere ez dute arin altxatu gura. Horrez gain, gure denbaldia neguan izaten da eta egunaldiagatik askotan ez dira etortzen*”, azaldu du Xabier Aurrekoetxea Urkoko presidenteordeak.

Arazoak arazo, urtero Sopelan egiten den mendi martxa antolatzen jarraitu dute. “*Aurtengoa hogeitabigarrena izan da. Taldea*

eratu eta hiru urtera, herriko jendea animatzeko zeozter egitea pentsatu genuen, talde oso majoa genuen eta”, gogoratu du Manzisidorrek. Horrela, Udalarari zein dendei laguntza eskatu eta egitasmoa abian ipini zuten mendizaleek. Hasieran martxa neurtua izaten zen, baina gaur egun ondo pasatzeko ibilaldia besterik ez da. “*Parte-hartzaileentzako hamaiketako eta txokolatada ere antolatzen dugu. Ondoren, opariak banatzen ditugu guztion artean*”.

«Aurtengoa Sopelako XXII. Mendi Martxa antolatu dute Urkokoek»

Inguruko herrietako mendi taldeakaz ere harreman ona daukate Urkokoek. “*Gauza batzuk alkarregaz antolatzen ditugu eta eurek antolatutakoetan ere parte hartzen dugu. Alderantziz ere gertatzen da, gure martxan ere etortzeko ohitura daukate*”, azpimarratu du Aurrekoetxea eta giro ona sortzen dela nabarmendu. ○


DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

**LAIKAK
Taberna**

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

**UDAKO PROGRAMAZIO
GAZTEA KULTUR ETXEAN**

Berangoko kultur etxeak programa berezia prestatu du uztaileko 4 eta 18 urte bitarteko gazteentzat. Alde batetik, 2002 eta 2003 urteetan jaiotakoentzat, Udako Ludotxikin parte hartzeko aukera egongo da. Asteleheneretik ostiralera, tailerrak, pailazoak, eta jolas bereziak izango dira ludotekan. Bestalde, Gazte Euskaltea egitasmoa burutuko da. Honetan irakurketa zein ipuinetako pertsonaia ezagunak izango dira ardatza. Horrez gain, irteerak egongo dira, Miarrizera eta Garaioa, besteak beste. 6 eta 12 urte bitarteko gazteek har dezakete parke Gazte Euskaltegian. Azkenik, 13 eta 18 urte bitartekoentzat, Uda Gaztea antolatuko dute. Horretan, berangoztarrek zein inguruko herrietakoek har dezakete parte, eta azken horietatik prezioa berezia izango da. Egun osoko txangoak izan ezik, arratsaldeak izango dira ekintza guztiak.

**JULEN NAFARRATE IZAN
DA AURTENGO KARTEL
LEHIAKETAKO IRABAZLEA**

Uztailaren 2tik 25era bitartean, Santa Ana eta Santo Domingo jaietarako kartel lehiaketara aurkeztu dituzten lanak ikusgai egongo dira goizez Berangoetako kultur etxean. Lehiaketaren zazpigarren edizioa da aurtengoa eta antolatzaileak pozik daude izandako parte hartzearekin. Izan ere, azkenengo momentuan izan bada ere, 12 lan aurkeztu dituzte, aurreko urteetan baino gehiago. Aurtengo irabazlea Julen Nafarrate gazte berangoztarra izan da. Txapeldunak 200 euro jasoko ditu eta bere lana ikusgai egongo da Berangoetan. Zorionak, Julen!



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

Berangotik Guatemala > Elkartasun proiektua

“Herriaren laguntza barik ezinezkoa izango litzateke egitasmo hau aurrera ateratzea”



20 bat gaztek parte hartu dute elkartasun egitasmoan

Urriari jarri zuten martxan **Berangotik Guatemala** egitasmoa Santa Anako kultur etxearen langileek eta Berangoko 20 bat gazteek. Lan gogorra egin dute hilabete hauetan. Orain uzta biltzeko garaia heldu zaie.

Lerro hauek irakurtzen dituzuenetako, Guatemalan egongo dira Garazi Pompa, Nahikari Abarrategi eta Begoña Hernando gazteak eta Ainhoa Alzaga, Eloien Rodriguez eta Leticia Arroyuelo begiraleak. Hauek guztiak eta beste askok **Berangotik Guatemala** egitasmoa martxan jarri zuten 2006ko abenduan. *PTM Mundu* bat gobernu kanpoko erakundearekin batera lan egin dute elkartasun proiektu hau aurrera ateratzeko. Erasoak jasan dituzten emakumeak laguntzen dituen zentro batera eta Antonio de Aguas Calientes herriko eskolara eramango dute hilabete hauetan bildu duten dirua. Baina materiala erostez gain, tailerrak eta beste hainbat ekintza antolatuko dituzte bertan egongo diren 17 egunetan: “*Ez dakit egin gura dugun guztia egiteko denbora izango dugun, bidaian denbora asko galduko dugu eta. Hala ere, zen-*

bait tailer hemendik eramango ditugu, globoflexia eta Gaztelekuaren prestatutako beste batzuk”. Hango bizimodua eta arazoak barrutik ezagutu gura dituzte: “*Beraien etxeetan bizi gura dugu, euren eguneroko lana ezagutzeko eta ahal dugun guztian laguntzeko; ez dugu hotel batean egon nahi*”.

Aratustek, Olenzeroa, San Juan gaua... Udalak antolatutako ekitaldi bereziak aprobetxatu dituzte berangoko gazteek euren lana kalera ateratzeko eta proiekturako dirua biltzeko. Horrez gain, Elkartasun asteburuaren barnean Rastrilloa egin zuten, herriko jende-

«Egitasmoarekin aurrera jarraitu ahal izatea espero dute Berangoko gazteek»

ak ekarritako eskulanekin: “*Ikaragarria izan da herritarren erantzuna, ez genuen horrelakorik espero. Gazteek lan handia egin dute, baina herritarren laguntza ezinbestekoa izan da*”.

Pozik daude orain arte egindakoarekin horregatik, egitasmoarekin aurrera jarraitu ahal izatea espero dute. Urriari jarrialdi bat antolatzeko asmoa daukate, berangoztarrei Guatemalan bizitakoaren berri emateko. ○

Laubide elkarte > euskal pilota bultzatzeko kirol taldea

“**Bigarren mailako** kirola da pala, aurretik futbola eta eskupilota daude”



Jokin eta Aitor, Laubide Euskal Pilota Kirol Taldeko kideak

Orain dela bi urte, Urdulizko lagun talde batek frontoian pala jokoa sustatzeko elkarte sortu zuen. Gaur egun, 15 bat gazte dauka Laubide Euskal Pilota Kirol taldeak eta badirudi palak, Urdulizen behintzat, etorkizun polita izango duela. “*Pala hiltzen ari da eta hori ez gertatzeko, modalitate guztietan jarduten dugu guk; narru, goma eta frontenisean alegia*”, azaldu dute elkarteko kideek. “*Hasieran ez genekien herriko jendeak zelan erantzun zuten; udalerrri txikia da eta kirol eskaintza handia dago. Bigarren mailako kirola da pala, aurretik futbola, eskubaloia, eskupilota eta saskibaloia daude-eta*”. Hala eta guztiz ere, harrera ona izan duela onartu dute eta egingo duten balantzea positiboa dela azpimarratu.

Bizkaiko txapelketetan lehiatzen dira kategoria gehienetan. “*Zortzi eta hamazazpi urte bitarteko gazteek osatzen dute taldea, hau da, benjaminetatik gazte mailarai-*

no. Seniorrak ere badauzkagu; gu geu esaterako, oraindik palagaz edo raketagaz ibiltzen gara”.

Taldekieetako bat Bizkaiko pala ordezkaria dela aprobetxatuz, frontenis txapelketa antolatu dute Urdulizen, kirola sustatu eta, bide batez, taldea ezagututazterako. “*Hilabete inaungo du, ekainaren 15etik uztailearen 15era arte. Iparralde fron-*

«Pala gutxinaka-gutxinaka hiltzen ari da»

toian da eta Euskal Herri osotik etorritako senior mailako kirolariak parte hartzen ari dira”. Antolatzaileek frontenisa aukeratu zuten narruzko modalitatea garestiegia delako. “*Narruzko pilota bakoitzak 15 euro balio du eta gure aurrekontua oso txikia da; udako jaietan jartzen dugun txosnak ematen digu ia diru gehiena, baina bazkideek eta babasleek ere laguntzen dute*”. ○

ALERGIA



Alergiatarako probak

CRISTIAN AMEZAGA
MEDIKU ALERGLOGOIA

MEDIKOSTA

IMQ-SANITAS-MAPFRE
ALGORTAKO ETORBIDEA 96
48991 ALGORTA
94 460 98 45

FPSS: 106-06

BASTARTEA



URDULIZ

Teléfono: 940 701 120

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



VIEJO CAFE

kopak eta giro jatorra

Alangobarrí, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

GORLIZKO ARGAZKI LIBURUA EGINGO DUTE

Gorlizko Udala jendea agertzen den argazkiak biltzen ari da, argazki liburua osatu nahian. Eskoletako ikasleak, elkartek, taldeak, txokoak, jaiak, elizkizunak eta familiak dira aukeratutako gaiak, beste askoren artean. XX. mendeko argazkiak bildu nahi ditu Udalak, 40 bat urte dituztenak lehentasuna daukaten arren. Uztailaren 10era arte Kultur Etxean utzi ahal izango dira argazkiak eta lan hau amaitu ondoren jabeek bueltan eskuratuko dituzte.

LEMOIZEK TOKIKO AGENDAN JASOTAKOAREN %21 BURUTU DU

Mugi 21 programa informatikoa erabili dute Lemoizen Agenda 21 Ekintza Plana noraino bete den jakiteko. Lortutako emaitzen arabera, ekintzen %21 arrakastaz bete dira, nahiz eta horietako batzuk lehendik ere garatzen ari ziren. Abian jarri dituztenen artean, etxeko olioaren bilketa, kirol-instalazioen egokitzapena eta Atalaia kalearen eta plazaren zaharberritzea daude.

GAZTE AKTIBOA 07 GORLIZKO GAZTEENTZAT

Gazteak kirola egitera bultzatu nahi dituen ekimen berria martxan jarri du Gorlizko Udalak: *Gazte Aktiboa 07*. Honetan, herriko gazteek zein inguruko herrietakoek har dezakete parte eta ekintzak uztaileko arratsaldeetan burutuko dira. Kanoa, snorkell, eskalada, orientazioa, surfa, arku jaurtiketa eta rapela praktikatuko dituzte.

MANKOMUNITATEA

Ortu ekologikoa sortzeko hastapen-ikastaroa



Argibide gehiago www.uribekosta.org webgunean

Ingurumena gehiago errespetatzen lagunduko duen hastapen-ikastaroa aurkeztu berri du Uribe Kostako Mankomunitateak. Lur zati bat daukaten txalet motako etxebizitzetan jabeek zuzendua dago batez ere, nahiz eta, Barrika, Berango, Gorliz, Sopela, Urduliz eta Plentzian erroldatuta dagoen edonork har dezakeen parte.

Ortu txiki bat sortzen eta ohiko barazkiak lantzen irakatsiko dute, baita nekazaritza ekologikoaren oinarriko premisak azaldu ere. Izan ere, antolatzaileen arabera, "lu-

rrak ematen dizkigun produktuak lortzean lurrari berari desoreka edo kalte larririk eragiten ez dioten teknikak" berreskuratu behar dira.

Hiruna modulu teoriko eta praktikok osatuko dute ikastaroa. 12 ordu izango ditu guztira eta iraileko eta azaroko bariku eta zapatuetan egingo da. Izen emateko orria www.uribekosta.org webgunetik deskarga daiteke eta Mankomunitateko bulegoetan entregatu behar da. Plazen kopurua mugatua izango da. ○

Uzt. 2 - 16

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GORLIZ

► **Endika Basagurenaren artelanak.** Erakusgela. Uztailaren 2tik 6ra arte. 19:00-21:00.

MUSIKA

GETXO

► **Jazz Euskadi: Just Friends.** Getxoko Jazzaldirako abonua daukatenentzat dohainik. Guggenheim. Uztailak 2, astelehena. 21:00.

► **Juan Pablo Balcazar Voyage Quartet.** Getxo Antzokiko plaza. Uztailak 4, eguaztena. 19:30. Sarrera dohainik.

► **Thinthank, Romano, Sclavis, Texier Trio.** Algortako Biotz Alai plaza. Uztailak 4, eguaztena. 21:30. Sarrera: 12/10 euro.

► **Legacy.** Getxo Antzokiko plaza. Uztailak 5, eguena. 19:30. Sarrera dohainik.

► **Andrew's Quartet, Paolo Fresu & Uri Cane.** Algortako Biotz Alai plaza. Uztailak 5, eguena. 21:30. Sarrera: 15/12 euro.

► **Jove Dixieland Band.** Getxo Antzokiko plaza. Uztailak 6, barikua. 19:30. Sarrera dohainik.

► **Mr. Chacho, Charlie Haden Quartet West.** Algortako Biotz Alai plaza. Uztailak 6, barikua. 21:30. Sarrera: 20/16 euro.

► **The Duet.** Getxo Antzokiko plaza. Uztailak 7, zapatua. 19:30. Sarrera dohainik.

► **People are machines, Lee Konitz Nonet.** Algortako Biotz Alai plaza. Uztailak 7, zapatua. 21:30. Sarrera: 15/12 euro.

► **Jon Urrutia & Pies en la tierra.** Getxo Antzokiko plaza. Uztailak 8, domeka. 19:30. Sarrera dohainik.

► **Jazzaldiko irabazlea eta Chucho Valdes Quintet.**



► Erakusketa

Fernando Barcenaren argazkiak

Laugarren aldiz erakusten dizkigu Fernando Barcena argazkilariak Jazzaldian ateratako irudiak. Oraingo honetan, musikaren ikuspegi berezia eskaintzen digu. Arreta handiz egindako argazkiak dira eta estudioan egindakoak ematen duten arren, argi eta garbi agertzen dute zuzeneko espiritua. Erakusketan, 2005ean eta 2006an egindako erretratuak edukiko ditugu ikusgai. Horien protagonistak, berriz, ospe handiko musikariak zein euren burua aurkeztu gura duten artista gazteak dira. Musikariaren emozioak irudiaren bitartez erakusten ditu Barcenak eta doinua sentitzen duten musikariak ikusi ahal izango ditugu. Erakusketa polita, ez galtzeko modukoa.

• **Non:** Satistegi Kafea (Algorta) • **Noiz:** uztailaren 19ra arte

Algortako Biotz Alai plaza. Uztailak 8, domeka. 21:30. Sarrera: 25/20 euro.

GORLIZ

► **Duo Assai: Iñaki Lagos biolin jotzailea eta Arkaitz Mendoza pianojotzailea.** Eliza. Uztailak 7, zapatua. 20:00.

► **Sinfonietta Ricercare orkestra eta Lirain Abesatza.** Eliza. Uztailak 14, zapatua. 20:00.

SOPELA

► **Liquen, My Sweet Torment, Kauta.** Txosnak. Uztailak 13, barikua. 23:00.

► **Celsius 32, Los Indomables, Kaotiko.** Urgitxeta plaza. Uztailak 14, zapatua. 23:00.

► **Uribe-Bazterra Musika Banda.** Urgitxeta plaza. Uztailak 16, astelehena. 13:15.

ANTZERKIA

GORLIZ

► **Los reciclaespaciales.** Helipuertoa. Uztailak 15, domeka. 12:30.

ZINEA

GETXO

► **Gaurik Laburrena: film laburren erakustaldia.** Algortako Biotz Alai plaza. Uztailak 10, martitzena. 22:00. Sarrera dohainik.

GORLIZ

► **Mozart txakurra.** Frontoia. Uztailak 13, barikua. 22:30.

BESTEAK

GETXO

► **Udako liburutegiak/Letren Terrazak.** Areetako Geltokia, Algortako Geltokia eta Andra Mariko Sarri plaza. Uztailaren 10etik abuztuaren 31ra arte. 12:00-14:00 eta 17:30-20:30.

► **Berto Jaialdi Mundiala.** Andoni Egaña. Jon Maia, Maialen Lujanbio... Algortako Biotz Alai plaza. Uztailak 12, eguena. 22:00. Sarrera dohainik.

► **II. Bigarren eskuko Liburuen Azoka Solidarioa.** Algortako Biotz Alai plaza. Uztailaren 12tik 14ra arte. 12:00-14:00 eta 17:00-21:00.

► **XXIII. Nazioarteko Folkore Jaialdia.** Algortako Biotz Alai plaza. Uztailak 19, 20 eta 21. 22:00. Sarrera dohainik.

GORLIZ

► **Itsas ertzean olerki errezitaldia.** Eliza. Uztailak 10, martitzena. 20:00.

SOPELA

► **Benito Rosen ikuskizuna (motor akrobaziak).** Urgitxeta plaza. uztailak 15, domeka. 19:30.

► **Rio Samba Show (karibeak ikuskizuna).** Urgitxeta plaza. Uztailak 15, domeka. 21:30.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92


e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]




Zalearen aurpegiak

90 minutuan milaka sentimenduren arteko desoreka eman daiteke. Arraroa datekeen arren, poztasunak malkoa eragin dezake, eta tristurak negar ez egitearren barrea sortu; ez dago gizakia baino bizidun ulergaitzagorik! Hori bizitzeko ongailurik ez zen falta izan San Mamesen. Eta eskerrak mediterraneoko haize ezaguna altxatu ez zela! Bestela, zenbat zoro! Baina, gutxienez, azken partidari 31 eskutik izan zuen taldeak! Ia datorren urtean karta banatzaile hobia suertatzen zaien! Datorrena datorrela ere...

Argazkiak: **Oskar Martinez**





Real Sporting Club

Inguruko aberatsek sortu zuten kluba 1898an eta Abran egoten zen baltsa flotagarrian ezarri zuten euren egoitza. Hara Areetako Club Maritimoko kaitik gasolinoan joaten ziren taldeko bazkideak. Real Sporting Cluba itsas kirolen urrezko garaiaren (1918-1935) bultzatzaile nagusia izan zen. Europa zein Ameriketarik etorritako ontziek parte hartzen zuten eurak antolatutako estropadetan, Espainiako Alfonso XXIII erregearen bisitetan antolatzen zirenak. 1980 arte ur gainean irauñ zuten baltsa horrek Abran, afrontu batek urperatu zuen arte.

[berbetan]

Azumendi. Bigarren abizenaz izenpetzera behartuta dago, aitarengandik jasotako Martinez arruntegia delako, “eta bereizi egin behar da”. 47 urteko algortar hau ez baita, izan, Gonzalo Martinez ezagun bakarra. Ba ei daude filosofo bat eta saskibaloj jokalaria bat ere bai. Guk, aukeran, nahiago geurea. Basagoiti etorbideko etxe batean dauzka bizilekua, betidanik, eta bulegoa, azken urteetan, eta badira urte askotxo. Bere kabuz dabil Martinez Azumendi, bizitzan eta lanean, beraren kasuan biak bereiztea oso gatxa den arren. Aspalditik dabil mundu osoko bazterretan, irudi onenaren bila; baina ez da artista -hala dio berak behinik behin-, kontua ez da hain erromantikoa. Hango eta hemengo aldizkariak bidalita ibiltzen da etengabeko joan-etorrian. Bidaia-aldizkariak ditu bezerorik fideleak, antza, eta hala, Azumendik bokazio biak uztartzea dauka: argazkigintza eta mundu osoan barrena ibiltzea. Sekula ez die sus-traiei gehiegi luzatzen uzten, eta halako batean aitortu digunez, sasoiak irauten dion bitartean eutsi gura lioke bizimodu horri. Luzerako izan dadila.

Gonzalo M. Azumendi

Mundu bete erretratu

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Gazte hasi zinen erretratuak egiten?

—Bai, 15 urte-edo edukiko nituen.

—Zelako kamera zeneukan orduan?

—Begira (altxa egin da), kromo bilduma baten truke oparitu zidaten bat neukan. (Kamera gordetzeko zorroa erakutsi digu; hutsik dago). Ez dakit kamera non dagoen. (Zorroa bere lekuan utzi du berriro, artxibategi eskeraren gainean).

—Hori guztia artxiboa da?

—Bai.

—Ez da txikerra gero!...

—Ez. Orain dena ari gara digitalizatzen, lan eta sufrimendu handiz. Argazki ba-koitza digitalizatzeko hiru ordu laurden behar da, eta jakina, hori drama da. Orain, noski, argazki berriak digitalak egiten ditugu.

—Jakina, askoz bitarteko teknologiko gehiago dago orain...

—Hala da. Ganbara iluna, orain, orde-nagailua da.

—Eskuz errebelatzen zen garaien minik badaukazu?

—Ez. Hara, lehen erosoagoa zen. Zuk diapo bat egiten zenuen -oraindik ere hala da-, errebelatzera erematen zenuen, eta kitto. Orain, berriz, irudiaren kontrol handiagoa daukazu; argazkia egin, eta aldi berean ukituak egin behar dizkiozu. Modu horretan bizi-kalitatea galdu da,

“Nire lehengo kamera kromo bilduma baten truke eman zidaten”

baina zeozer irabazi dugu beste alde bate-tik: edonondik deitzen digute, Wyo-mingetik esaterako, eta berehala jar deza-kegu argazki bat han.

—Zuri edonondik deitzen dizute, ala?

—Madrildik eta Bartzelonatik batez ere. Jakina, lehen, argazki bat eskatu eta mezulari-zerbitzu baten bidez bidali behar zen. Eta are okerragoa zen halako-

rik ere ez zegoenean! Orain denek dauka-te presa, eta guk eraginkorrak izan behar dugu; nik, orain, Madrilgo erredakzio batera argazki bat bidaltzeko garaian, Madrilen bertan dagoenarekin lehia egin dezaket. Eta hori gauza handia da.


—Zelan hasi zinen argazkigintzari esker bizitzen?

—Ezin jakin seguru. Hasieran ez zara

bizi; lan egiten duzu, lan handia, eta di-rua irabazten duzu baina ez bizitzeko beste.

—Orduan, egin izan duzu besterik lapi-koa betetzeko...

—Ez, argazkiak beti. Hasi nintzanean amarekin bizi nintzen oraindik. Beraz, ez dakit zehatz noiz hasi nintzen honetaz bizitzen.



—**Prentsan jardun duzu?**
 —Bai. Ni leku bitan hasi nintzen argazkiak egiten, niretzat funtsezkoak izan diren leku bi: Getxoko kultur etxea eta *Galea* aldizkaria. Aldizkari hura oso eskola ona izan zen guretzat, eguneroko arazoan aurrean jartzen gintuelako, eta erantzukizuna harrarazten zigulako. Horren ondoren, zeozer egiten hasi nintzen *El Correon*, baina egia esan prentsako lana ez zen niretzat. Nik emozioa maite nuen, bidaiak...
 —“Guretzat” esan duzu. Jende gehiago zebilen?
 —Bai noski. *Galea* Algortako jende askoren eskola izan zen.

—**Eta zertan dabilta orain?**
 —Asko argazkilariak dira.
 —**Zure modukoak, arte-lana eginez...**
 —Hara, ni ez naiz artista, ni ogibidez naiz argazkilaria. Dena dela, ezin dut besteren izenean berba egin. Ez dakit zein ibilbide eduki duten, zerk bultzatu zituen argazkigintzara...
 —**Askoren patua ezkontza, bataio eta jaunartzeak dira...**
 —Bai, hori ere badago. Ondo dago, lanbidea ere bada, eta erantzukizun bat dakar. Badu bere zailtasuna eta erre egiten du, ni nire lanak erretzen nauen bezala. Astebete barru Lisboara joan behar dut, sekulako beroa jasango dut, agenda estu-estua edukiko dut, eta ez daukat huts egiteko aukerarik. Zorte ona eta adore handia ditut bidaia lagun, eta horri esker aurrera ateratzen dut lana. Baina ezin daiteke hutsik egin, eta erantzukizun ikaragarria da.

—**Teknologia digitalak erosotasuna ekarri du, lehenago aipatu dugunez. Baina harrotasun profesionala galarazi dizue? Lehen gatxagoa zen argazki on bat egitea. Edo ez?**
 —Ez, harrotasunik galdu ez. Kontuan har ezazu ni iruzur egilea naizela. Nire helburua emaitza bat lortzea da, ez nago ezeri lotuta, ez daukat ez etikarik ez estetkarik. Hau da, askatasunez dihardut gutxi gora-behera, eta nahi dudana argazkiek euren egitekoa betetzea da, norbaitek aldizkari

bat zabal dezala eta hunki dadila argazki hori ikusita. Horretarako zeozer kendu behar bada ordenagailuz, kendu egiten da. Hori ere argazkigintza da. Eta momenturen batean faltsukeria bat saldu behar badut, saldu egiten dut. Ez naiz horregatik kezkatzen. Eliza erreonakio baten edertasuna jaso behar badut argazki batean, eta aurrealdean zabor-poltsak badaude, kendu egin beharko dira poltsak.

“Ez nago ezeri lotuta, ez daukat ez etikarik ez estetkarik”

—**Freelance zara, eta besteak beste bidaien gaineko aldizkarietarako egiten dituzu argazkiak.**
 —Bai. Baina ez da sekulako negozioia ere. Eguenorokoaren menpe zaude, eta eroan handikoa izan behar da. Hilabate ematen baduzu telefonoa hartu barik, beste norbait dagoela esan nahi du. Hori ere ona da: hainbesteko lehia dago, 20.000 argazkilari dago-eta, lan egitera behartuta dagoela norbera. Lehia hori energia iturria da.
 —**Zelan moldatzen zara argitaratzaileakaz?**
 —Badaukat haien maitasuna, baina ez didate lo hartzen uzten, ez niri eta ez inori.
 —**Telefonoak batzuetan bestetan baino sarriago jotzen duela diozu. Zu zeu behartuta egoten zara deitzera?**

“Paisaiak baino, jendea dut gustuko, baina duintasuna daukan jendea”

—Bai, bai. Astebete ematen badut deirik jaso barik, larri paratzen naiz.
 —**Eta argazkiak egiten dituzu gero saltzen ahalegintzeko, alegia, inork eskatu barik...**
 —Ez, hemen badaukat (artxibategia adierazi du keinu batez) sal dezakedana baino material gehiago. Baina eurek deitu behar dute, hori da onena. Ni beti egon naiz inoren zerbitzuplean, ez diet inoiz lehenta-

sunik eman neure egitasmoiei, eta egitasmorik ere ez dut eduki sarritan.
 —**Argi dago bidaia asko egiten duzula. Baina zenbat, zehazki?**
 —Bada, begira: martxoan Dominikar Errepublikan egon nintzen, ronaren gaineko erreportaje bat egiten. Handik etorri eta berehala, Libiara joan nintzen, basamortura; neuk ordaindu nuen bidaia hura. Ondoren, maiatzaren 1eko zubian,

Estanbulen egon nintzen, orain dela gutxi Finlandian, eta egun batzuk barru Portugalera joatekoa naiz.
 —**Eta atsegin duzu nomada izate hori?**
 —Bai. Hemen ondo egoten da, baina nahaspila handia dago, iskanbila askotxo. Kanpoan lasaia go.
 —**Argazkirik egiten duzu hemen inguruan?**
 —Ia bat ere ez.
 —**Gozatuko zenuke, eginez?**
 —Ez asko. Dagoeneko ondo ezagun dut inguru hau, eta ez nuke jakingo zelan ekin lanari. Bestalde, hemen ez dago bezerorik, ez dago mugimendu handirik. Gainera, hurbiltasuna arazoa da niretzat.
 —**Zergatik?**
 —Eroso bihurtzen nauelako. Orain, esa-

terako, Bilboko Arte Eder Museoaren erretratu batzuk egin behar ditut. Eta hain hurbil dudanez, egunero esaten dut: bihar joango naiz. Kanpoan nagoenean, aldiz, data zehatz batzuk baino ez dauzkat lana burutzeko. Eta *Sagu Ausarta* bezala ibiltzen, jo eta ke. Edozelan, badiotsut hemen ia ez didatela lanik eskatzen. Bestetik, asko interesatzen zait berria den edozer. Eta hemen ez dut ezer berririk topatzen,

noski, ezagunegia dut. Esan gabe doa aldizkari batzuek Bilboko argazkiak eskatzen dituztela, esaterako; tira, egin egiten ditut eta kitto. Seguruenik, inguruko argazki gehiago egin nezake. Eta egingo nuke, nik neuk bidaiak finantzatzeko modurik ez banu.
 —**Baina, munduan gora eta behera hainbeste ibili, azkenean ez da hor ere dena errepikatzen?**
 —Ez, beti da desberdina. Gainera, nik munduaren aurpegi atsegina ikusten dut, eta hemen, aldiz, badakit zein den aurpegia. Ezagutu egiten dut, eta ezin dut argazki bidez inor engainatu, ezta neure burua ere. Finlandian, berriz, dena berria denez, alderdi gozoa da niri ailegatzen zaidana.

—**Eta zuri alderdi gozoa erakusteko eskatzen dizute beti.**
 —Ez du zertan.
 —**Orduan, egokitzen zaizu inoiz herrialde bateko miseria argazkitan jasotzea, konparazio baterako?**
 —Ez, normalean ez dut halakorik egiten. Beste argazkilari mota bat da horretan dabilena, nik ere gozoak ez diren argazkiak egiten ditudan arren. Baina argi dago bidaia-aldizkari batek Polinesia irudiak eskatzen badizkit, nik bizi-kalitate bat islatu behar dudala hor, bertara joateko gogoia pizten duen zeozer.
 —**Errealitatea makilatu egiten duzu, hortaz...**
 —Ez dut uste gehiegi makilatzen denik ere. Halako hondartzaren irudiak eska-

tzen badizkigute, zer atera behar dugu ba? Euritan dagoen eguna ez behintzat.
 —**Paisaiak edo pertsonak nahiago?**
 —Pertsonak. Naturak, mendiak, hondartzak.. aspertu egiten naute. Nire argazkietan jendea dut gustuko, baina duintasuna daukan jendea. Gainerakoa, argazkigintza ariketa hutsa da. Begiratu argazki hauei (aldizkari bat eskuetan duela), ereduia beti da berdina: bizkarra erakusten digun pertsona bat, atzean dagoen zeru-mugari, paisaia eder bati, begira. Beti da gauza bera, baina funtzio bat betetzen du. Nik uste dut beste era batez ere egin litekeela, baina ulertzen dut ez direla ausartzen. Eta argazkilariok ere ez gara ausartzen. ○

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
 Kalea & zenb.....Herria.....
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
 Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Urbe Kostako Aldizkaria
 171 posta kutxa / 48991 Getxo
 uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37



Athletic, eup!

Futbola (kirola baino gehiago batzuentzat). Andrazkoena futbola den zalantzan jartzen dutenei ibilbideari begiratzea eskatuko genioke, aurtengoan ez da egon eta nesken taldeari atzaparririk bueltatuko dion gizonezko talderik. Baina ez da "gabarrik" atera! Batzuk ezpataren ahotik dantzan ibili diren bitartean, besteek etsaia menpean hartuta egin dute orro. Eta eguen zuri batean antolatu zuten haietzako omenaldia; alderantziz izan balitz! Begoñako Ama ere emakumezkoa dela! Datorren urterako berdintasunaren aldeko hautagairik balego, gu haren alde!

Argazkiak: **Pedro Agustin (emakumezkoak) & Oskar Martinez (gizonezkoak)**

[eutsi diotenak]



[txapeldunak]



[eutsi diotenak]



[txapeldunak]



[eutsi diotenak]



[txapeldunak]



zineeskola

Oskar Fernandez

Zinema eta historia

Filmen bidez ezagupen desberdinak eta ugari izan ditugu. Bost ozeanoetatik ibili gara, Lur planetan izozturik dauden lurraldeetatik igaro gara, basamortuetatik oihanetara hegaz egin dugu, galaxiarteko espazioetatik, argonautak izango bagina bezala, bidaiatu dugu, gizakien sormena eta bere etorkizuna ezagutu genituen, hori dena batera film bati esker: *2001: espazioko odisea*, lur planetan izan diren zibilizazio desberdinak ikusi ditugu... baina argi izan dezagun: filmak dira, beraz istoriotxoak baino ez. Errealitatea askoz aberatsagoa eta beti zeharo desberdina da. Berbarako, historikoak deitzen diren filmek askotan erabiltzen dituzten estrategiak, garatzen dituzten istorioei halik eta hoberen egokitzeko, oso eraginkorrak dira, eremu historiko zehatz batetan kokatzen baitituzte. Historia ikasi eta ezagutu nahi baldin badugu liburuetara jo behar dugu. Nork ez du ikusi *Apocalypse now* Francis Ford Coppola zuzendarik egindako film ikaragarria. Istorio hau AEBek Vietnamen piztutako guda bortitzean oinarritzen da. Filma izugarria izan arren, logikoa denez, ez du ezer ikusirik han gertatutakoarekin. Zenbakiak oso adierazgarriak dira, horrexegatik erabiliko ditugu: AEBetako soldadu hilak 58.209 izan ziren, Vietnamekoak, berriz, 830.000. Orain gogoratuko dugu Jean-Jacques Annaud, zuzendari frantziarrak Stalingradoko gudari buruz zuzendu zuen filma: *Enemy at the gates*. Aipatutako hirian gizakiak ezagutu duen gudarik bortitzena, izugarriena eta latzena jazo zen. Annaudek historiaren pasarte ikaragari hori bere istorioa garatzeko, besterik ez, erabiltzen du. Izan ere, aurretik, ondo baino hobeto zekien han gauzatu zen infernua irudien bidez kontatzea ezinezkoa zela.

Gaurik laburrena emanaldia

Film laburren topagune getxoztarra **hilaren 9an eta 10ean** egingo da Biotz Alai plazan

Zinegile gazte edo berrien lanei erakusleioa (txikia edo handia) eskaintzen die urtero Getxoko Gaurik Laburrena ekimena. Iraupen laburreko filmak dira protagonista urtero Algortako Biotz Alai plazan, aurten 19 lan emango dituzte (22:00); lehenengo eguna gaztelerazko 10 film, eta biharramunean euskarazko 9 pelikula eskainiko dituzte.

Hala, garagarriaren 10ean, astelehena, gaztelerazko hurrengo film labur hauek pantailaratuko dituzte: *Regular* (Alfonso Nogueroles; 12 min), *Estrabicos* (Mikel Usoz; 10 min), *Maquina* (Gabe Ibañez; 16 min), *De Formacion Profesional* (Asier Iza; 11 min), *El Relevo* (David Gonzalez Rudiez; 8 min), *La leyenda del hombre lento* (Armando del Rio; 12 min),

«Bigarren egunean, martitzenean emango dituzte 9 euskal lanak»

El futuro esta en el porno (Vicente Villanueva; 14 min), *Traumatologia* (Daniel Sanchez Arevalo; 20 min), *Banal* (David Planell; 12 min) eta *Equipajes* (Toni Bestard; 10 min). Martitzenean, hilak 10, egingo dio lekua Gaurik Laburrena ekimenak euskarazko 9 film laburri, hurre-



Jaialdiaren kartela

nez hurren: *Midori* (Koldo Almandoz; 8 min), *Bilintx* (John Anduela; 10 min), *Urbaltzaga* (Santi Urrutia; 18 min), *Loturak* (Ane Muñoz; 19 min), *Elbi txuriei begira* (Andoni Mendizabal; 18 min), *Olatuak Deban* (Iñigo Iruretagoiena; 11 min) eta *Ba al dakik nola jainkoa barrea-razi* (Urko Villasante, 6 min), eta *Dindandua* eta *Eskolako gertaerak* (biak Larrotxene Kultur Etxeak hautatuak, 20 min eta 5 min). Momentu jakin batean berba egokia aurkitu duenak ondo daki laburtasunaren eta zehaztasunaren garrantzia zein den; goza ezazu! ○

Ez galdu > Memorias de Queens



laz AEBetan egindako filmea da hau (ingelesez *A guide to recognizing your saints*). Bere sortzailea istorioa garatzen den lekuan bertan jaio eta bizi izan zen Los Angeles hirira joan arte. Pelikula hau Dito Montielek zuzendu eta gidioia idatzi du, eta idea eta argumentoa berak asmatutako eleberrin baten atal batetik aterata dago. Nazioarteko Zinemaldi desberdinetan sari ugari izan du. Sundance Zinemaldian zuzendaririk hoberena eta epaimahiaren sari berezia lortu ditu pelikula honek. "Opera prima" den film honek irudien bidez New Yorkeko hirira eramango gaitu, Queens barrutiko Astoria auzoraino hain zuzen ere. Auzo horretara istorioaren protagonista hamabost urte igaro ondoren itzuliko da bere ama gero eta gaixoago dago-eta. Bertan aspaldiko lagunekin eta haurtzarokoekin berriro elkartuko da.

XXXI. Nazioarteko Jazzaldia

Hilaren 4tik 8ra Getxo jazz zaleen topagune bihurtuko da hamaika emanaldigaz



Argazkian, Paolo Fresu eta Uri Caine. Kontzertu guztietarako bonoa: 70 euro. Sarrerak: 94 491 40 80

Oraintsu Getxoko Blues jaialdiak 10.000 lagun erakarri zituen, eta haren lekukoa hartuko du uztailera lehenengo astean Euskadiko Jazz zirkloari hasiera emango dion Getxoko Nazioarteko Jazzaldia. XXXI. Getxoko Jazzaldia daukan egitarau zabalaren printzak baino ez diren emanaldi batzuen berri emango dugu ondoren (taldeen ordena egun bakoitzaren arabera emango da). Taldeen Lehiaketan parte hartuko dutenak hauek dira: Thinktank (Holanda), Andrew's Quartet (Errusia), Mr. Chacho (Espainia) eta People are Machines (Danimarka). Horien ostean joko duten egun bakoitzeko kontzertu

nagusiak hauek izango dira: Romano-Sclavis-Texier trio, Paolo Fresu & Uri Caine, Charlie Haden Quartet West, Lee Konitz eta Cucho Valdes Quintet. Emanaldi horiek Biotz Alai plazan izango dira (21:30). Bestalde, Hirugarren Milurteko atalean hurrengo talde gazteek parte hartuko dute: Voyage Quartet; Legacy; Jove Dixienland Band; The Duet, eta Jon Urrutia Latin Trio. Kontzertu horiek Getxo Antzokia plazan izango dira (19:30) eta sarrera doakoa da. Gainera, ezin ahaztu jam sessionak, Fernando Barcenaren aurreko jazzaldieta-ko argazki erakusketa, Rob Espino marchin' banda... ○

diskoak

Costello Music
The Fratellis
Island/Universal



Taldearen izena *The Goonies* film entzutetsuan agertzen diren gaizkile familiarik hartuta dago. Hit-akaz beteriko diskoa dugu hauxe: Henrietta, Chelsea Dagger, Flathead... Franz Ferdinand, Arctic Monkeys edota Kaiser Chiefs taldeen ildotik doa The Fratellis. Erritmo dantzagarria, melodia itsaskorrek eta ahalik eta jende gehienarengana heltzeko formula errazak.

Faro
Iñaki Salvador
Errabal



Iñaki Salvadorrek euskal Herriko bederatzik jazz musikari bildu ditu zazpi abestiz osatutako lan honetan. Musikariaren doinuaren inprobisazioaren maisutasuna nabari da, aitez ere Gonzalo Tejadaren kontrabaxuari eta Vitor Diego zein Mikel Anduezen saxoiei esker. Jabier Muguruzaren bi kanten moldaketak ere biltzen ditu Faro: Benito edo Benino eta Haurrak haunditzen doaz.

Geisha
Nuuk-At
Ideiak Bultzatuz



Sortu zenean, metal doinuarentaroko joera zeukan Zornotzako Nuuk-Atek, baina azken lane honetan rock and roll bortitzaren aldeko apustua egin dute. Abestiak zuzenak dira, meodia gordinakaz.: *Geisha*, *Arnetsak bizi nau*, *Egarriz gose*, *Hoztu da uda...* Halere, badira diskoan giro horretatik aldentzen diren bi abesti: *Ilundu du gauak* eta *Udagoiena*. Horietan, atmosfera ederrak sortu dituzte musikariek.

diskoa >

Musika Eskola

Andres Isasi Musika Eskolako ikasleek *Andres Isasi Musika Eskolako Taldeak II* diskoa plazaratu berri dute. Eskolako 900 ikasleetatik 150 inguruk parte hartu dute diskoaren sormenean, oro har ikasle eta irakaslez osaturiko 14 musika talderen lanak jasotzen ditu CD bikoitzak. Musika estilo desberdinetako hamaika doinuak osatzen dute diskoa: jazz, klasikoa, fanfarriak, flauta, orkestra, abesbatzak, hari taldea, perkusioa... 1.200 kopia kaleratu dituzte eta udal egoitzetara hurbilduta eskura daitezke.

kontzertuak >

Aste Nagusia

Bilboko jaien alde bat kontzertuen inguruan batzen da eta daborduko Bilboko Udalak jakinarazi du hilaren 18tik 25erako prestatu duen egitaraua: Botika Zaharran (00:00) Chayanne, Dover, Alex Ubago, Violadores del verso, Delinquentes, Baron Rojo, Factory eta Miguel Bose; Abandoibarran (23:30) Nena Daconte, Maria Dolores Pradera, Launion, Oskorri, La Quinta Estacion, Kerobia /Skalariak, Pignoise eta Spektrum; Plaza Barriar (00:00) Milladoiro, Northern Kentucky, Iker Goenaga, Karidadeko Benta, R. Brecker & Pirineos Jazz, Marina Heredia, Tito Paris eta Horace Andy. Halere, Txosna Batzordearen egitarauaren zain lotzen gara.

BERDINEAN Euskaraz

Elige en euskera!

UMEZAINZAILE EUSKALDUNAK
Behar ditugu
Buscamos CUIDADORAS/ES EUSKALDUNES DE NIÑOS/AS
Inscripción: [] PARA ZERBITZUA

KIROL BEGIRALE EUSKALDUNAK
Behar ditugu Buscamos MONITORAS/ES DE DEPORTE EUSKALDUNES
Inscripción: EUSKARA

AISIALDIKO BEGIRALE EUSKALDUNAK
Behar ditugu Buscamos MONITORAS/ES DE TIEMPO LIBRE
Inscripción: [] ZUA

AURKEZLE EUSKALDUNAK
Behar ditugu Buscamos PRESENTADORAS/ES EUSKALDUNES
Inscripción / Inscr: [] EUSKARA ZERBITZUA

KLASE PARTIKULARRA EMATEKO JEND EUSKALDUNA
Behar dugu Buscamos PERSONAS EUSKALDUNES PARA IMPARTIR CL. PARTICULARES

Euskara zerbitzua LEIOAKO UDALA

Argibide gehiago

EUSKARA ZERBITZUA

Kultur Leioa
4. solairua
T. 94 607 25 76



[liburuak]

Letren Terrazak

Getxoko hiru plazatan irakurtzeko txokoak ipiniko dituzte hilaren 10tik abuztuaren 31ra arte

Eguzkiak gehien berotzen duenean eta gizakiak aisialdiari bitarte luzeagoa eskaintzen ei dion urtaroen, literaturaren jesarleku udatiar bihurtzen dituzte plazak Getxoko liburutegiak. Irakurzaletasunari aukera gehiago emateko asmoz aurten ere Letren Terrazak izeneko ekimena ipiniko dute martxan liburutegi getxoztarrek hilaren 10ean hasi eta abuztuak azken hatsa ematen duen egunera arte. Areetako eta Algortako Geltoki plazatan eta Sarri plazan (Andra Mari) lekutuko dituzte Letren Terrazak eta literaturaz gainera egunkariak, aldizkariak eta bestelako irakurgaiak ipiniko dituzte begietara eroateko. Horrez gainera, umeentzako jolasak eta lantegiak

«Pasa den urtean 27.000 bat lagun hurbildu zen Letren Terrazetara»

ere eskainiko dituzte. Udal liburutegietatik adierazi dutenez, iaz Letren Terrazetara 27.000 bat lagun hurbildu ziren. Halere, jakina denez, ez da udal liburutegietatik irakurzaletasuna sustatzeko antolatzen duten ekimen bakarra, badira besteak beste: Liburu Azoka, Kontularien Kluba, literatur lantegiak, irakurketa gidak... Pasa den urtean 143.000 inguru irakurzaletak erabili zituzten Getxoko Liburutegien zer-



70.000 liburu utzi zituen maileguan iaz Liburutegiak

bitzuak; 70.000 liburu utzi ziren maileguan (iaz baino %4,9 gehiago), nahiz eta horien %11,3 baino ez ziren izan euskarazkoak. Bestalde, joan den urtean 2 ekimen berri ipini zituzten abian Getxokontari jaialdia eta Liburu Erabiliaren Azoka, hurrenez hurren, 3.000 eta 10.000 lagunek hartu zuten parte, horregatik, aurten ere antolatzea erabaki dute.

Irakurtzea erloju barik dabilen aterpe jakin bako bizilaguna da. Bere herrialdera hurbiltzen denak non, noiz eta zenbat aukeratzeko askatasun osoa dauka, eta bertako eskaintza aniztasuna muga bako aberastasuna da; bertara hurbiltzeko gonbita duzu hau, zator irakurtzera! o

liburuak



Erremateko tiroa
Margarite Yourcenar
Alberdania

Hiru gazte gerra zibilak nahastu eta suntsitutako Kurlandiako herrialde bakartuan, Lehenengo Mundu Gerraren azken urteetan eta Sobiet Iraultzaren hasieran bizi dira. Gerrak jarriko du agertokia, patuak elkartuko ditu pertsonaiak eta haien desira bateraezina.



Isturitzetik Tolosan barru
Joxean Artze
Pamiela

60ko hamarkadan bide berriak jorratzen hasi ziren literaturan, artean, musikan... Joxean Artzek garai hartan idatzi zuen poema liburu hau eta orduetik 40 urte igaro badira ere, faksimil moduan kaleratu dute, literatur balioa izateaz gain, esperimintazio eta abangoardiako artelana ere badelako.

[kirola]

Ander Gardeazabal > eskalatzaillea

“Hiru urte daroaguz Dimako Rockmasterrean bideak ekipatzen”



Ander Gardeazabal, Dimako Rockmasterreko bidegilea

Gatikan bizi den 40 urteko Ander Gardeazabal bilbotarra 17-18 urterekin hasi zen eskalatzeko. Bizkaiko Teknikazio zentroa daroa gazte mailan eta bideak ekipatzeko nazioarteko ziurtagiria dauka. “Mendian hasi nintzen eskalatzeko ikastolako irakasle batekin, eta handik aurrera apurka bidez aldatzen joan ginen, bertikaletik horizontalera. Urteekin gora zoaz, entrenatzen gure kabuz ikasi dugulako, eta eskalada-murruak (rokodromoak) sortu direlako, horrek asko lagundu du”, du akorduan. Ekainean Dimako Rockmaster arrakatsuan ekipatzaile lanetan jardun zuen, “Diman gabiltzala 3. urtea da hau. Hasieratik entrenatzeaz gainera zeharkaldiak eta bideak asmatzea oso gogoko nuen eta horrela hasi nintzen, azkenean ekipatzaileen nazioarteko ziurtagiria atera nuen, bideak irekitzeko eta diseinatzeko. Egia esan, master honetan bakarrik egin dut lan hori, nazioartekoetan burua sartzeko oso gaitza da”. Eskalatzeko nondik ibili den galdetuta zera erantzun du: “Nondik ez ete naizen ibili? Gurean gehienetan, Espainian, European, putzutzarra ere igaro genuen. Orain 4 urte bikotzak eduki genituen (eskalatzeko badabilzaknak!), harrezkero zailagoa da halako bidaia

egitea, baina...” Buruan dauzka oraindik ere hamaika eskaladagai, adb. Australian edota Hego Afrikan. Euskal eskalada munduaz ere eman du iritzia: “Egia da puntako eskalatzailak ditugula, baina gazteekin ez da behar den lana egiten, eta ez dago azpiegitura nahikorik. Gasteizen eta Iruñean badaude eta apur bat hobeto daude, baina Bizkaian orain arte ez da

«Belaunaldi berriak bideak zabaltzera animatu nahiko nituzke, harrian ere bai»

egon aukerarik! Hori arazoa da: badira bulderrean 8a+ zeharkaldiak egiten dituztenak, baina bestean ez dira gai 7b edo 6c+ bat egiteko. Bulderretan hasten zara, gero lagunekin joaten zara, horretan urteak ematen dituzu; europako gazte batzuk kristonak dira 14 urterekin! Nire ustez, han azpiegitura hobek dituztelako da”. Amaitzeko, belaunaldi berriei eronka luzatu die: “Bideak zabaltzera anima daitezten, ez rokodromoetan bakarrik, harrian ere bai; inork ez baditu zabaltzen azkenean ezin izango dugu eskalatu! Badaude hor betiko 3 lagun horretan dihardutenak, baina lekukoa nori utz diezaioke-

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kizol moda



350 M²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris S.L. SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRITEERA DOAN

94 430 52 00

Kasune, 18 · ALGORTA

Zure publizitatearen hamaikazetaren zure publizitatearen hamaikazetaren zure publizitatearen hamaikazetaren

94 491 13 37

Monica Crespo > Algortako Literatur Tailerreko arduraduna

“Urteetan albo batera utzi behar izan duten literatur grina asetzerara datoz gurera”



Argazkian, Monica Crespo

Monica Crespo ez du filologiari ikasi, baina literatura da bere bizitzako pasiorik handiena. Liburu bat baino gehiago aldi berean irakurtzeko gai dela kontatu digu Monicak eta mundu honetan literatur tailerren bitartez sartu zela gogoratu du. Argentinako idazle batez ere lan egin du, baita narrazio lehiaketaren bat edo beste irabazi; baina ez du inoiz berak egindako ezer argitaratu. Hori egiteko daukan zeozer dela agindu digu.

—Zer lantzen duzue literatur tailerlean?

—Parte-hartze aktiboaren bitartez literaturara hurbiltzen saiatzen gara, hau da, sormenaren eta ikasketaren bitartez literatura erai-akitzea. Eskolak zati bitan banatzen ditugu: teorikoa eta praktikoa. Lehenbizikoan, teknika batzuk mahai gainean jartzen dira, autore batzuk erreferentziatzen hartuz. Ondoren, teknika horiek praktikara eramateko ariketak planteatzen dira. Azkenik, guztia amankomunean ipini eta bakoitzak bere iruzkina egiten du. Azken finean, irakurtzen eta idazten ikastea da egiten duguna.

—Zenbaterik osatzen duzue taldea?

—Taldea bi gara, 15 pertsonakoa bakoitza eta batez besteko adina 40 urtekoa da.

—Oso gazte gutxi, ezta?

—Bakoitzak daukan eginbeharrakaz lotuta dago: ikasten egon edo lan handia edukiz gero, ezin duzu astean lau orduko literatur saioa eduki. Dagoeneko egonkortasun ekonomiko, profesional eta familiarra daukan jendea dator hona; urteetan zehar albo batera utzi behar izan duen literatur grina asetzerara datoz gurera.

—Jendeak irakurtzen al du?

—Nik baietz uste dut. Jendeak metroan, hondartzan, parkean... irakurtzen du, baina

hori daukagun aisialdi tartearen araberakoa da.

—Literatur eztabaidak ere antolatzen dituzue.

—Tailerlean eleberrak ere irakurtzen ditugu, ondoren arakatu eta kritika egiteko. Tailerreko edonork liburu bat proposatu eta guztiok irakurtzen dugu. Hil bat daukagu horretarako eta behin amaituta, Algortako The Piper's Irish Pubean elkartzen gara liburuaren inguruan eztabaidatzeko. Proposamena egin duenak idazleari buruzko informazioa eskaintzen du eta lana dagokion kontestuan kokatu. Jende asko entzuteratortzen da eta tailerreko ez denak ere parte

«Gabriel Garcia Marquezen ustez, munduko jokorik serioena da literatura»

hartzen du. Normalean hileko hirugarren egunean elkartzen gara.

—Ze genero lantzen duzue?

—Denetarik: misterioa, erotikoa... Gainera, mundu osoko literatura irakurtzen dugu: japoniarra, euskalduna, anglosaxoia, frantsesa... Zeozer interesgarria izatea da garrantzitsuena.

—Baldintzarik bete beharra al dago tailerlean parte hartzeko?

—Idazteko eta literaturan murgiltzeko gozatu besterik ez da egin behar, joko bat besterik ez dela ulertzea. Gabriel Garcia Marquezek esaten duen legez, “munduko jokorik serioena da literatura”. Berbakaz jolastu gura dugu, literatura desmitifikatu. Ez duzu aparteko abileziarik behar; bai ordea, gozatzeko eta zeure burua aske uzteko gogo. Horretarako pentsamendu irekia eduki behar duzu, literatura espresatzeko bide artistikoa da eta. Ateak zabalik daukan tailerra da Algortakoa. ○

Testuak eta irudia: Xabi Bilbao

Esakere > “Harek agoa alkate”



Esaneko ixeteko esango dautse sarri aittamamak illobari, aixe-amak esaniko egiteko kontesta barik, hori gauza ona da ta. Gaur egun, baia, esaneko dan ume ta nagosi gitxi topako doguz inguruten, eta ostera lagun ugari zer egin behar dan esateko prest. Esateko prest danok beti, eta entzuteko, ifhor gitxi. Grazik ez garala ondiño helduten irudiko morroien neurrire, baia bide horretan goaz, belarri ez, agoa dogule alkate.

Esakera hau R.M. Azkuek baturiko da, eta beran “Euskalerriaren Yakintza” behar handin topako dozue.

Gure berbakere⁹⁹

Berba jator batzuk (XXIV)

Berbakere 95en gure euskerako aditz batzuk ikusi genduzen, danak zeozeitik berezik direzenak. Berbakere honetan bere, gure euskerako aditz berezi batzuk ikusiko doguz, baia gaurkok mailleguk ixengo direz gehienak, hau da, erderatik hartu doguzen aditzek.

Aurreko baten ikusi gendun lez, modu biten akabaten direz gure euskeran erderatik datozen aditzek: erderako *-ar* konjugaziñotik datozenak *-a* hutsegaz akabaten direz (*pensar* -> *pentsa*), eta *-er* eta *-ir* konjugaziñotatik datozenak, *-idu* edo *-u* hutsegaz (*defender* -> *defendidu* edo *defendu*; *elegir* -> *elejidu*, *eleju*, eta abar).

Gaur lehelengo motako adibide on batzuk ikusiko doguz:

• **usa**: erderako "usar"-etik dator, baia "ohitu" esateko erabilten dogu gure berbakerean (adibide: *'Behingon usa direz hemeke bizimodure*).

• **akórda**: erderako "acordar(se)", batuaz sarri "gogoratu" (baia ez erabili "adostu" esateko).

• **altza**: erderako "alzar"-etik dator, baia "altxatu" esateko erabilten dogu guk (adibide: *'Buruko miñeaz altza da oihatik*).

• **armósa**: erderako "almorzar"-etik dator, baia "gosaldu" esateko erabilten dogu (ad.: *'Goxeti armosa dau*).

• **auménta**: honegaz aditzegaz nahastetu bet pasa da segurun bere; argi dago erderako "aumentar"-etik datorrela, baia ez dogu erabilten esangure horregaz, "mentar" esanguregaz erabilten dogu, hau da, "aipatu" esateko (ad.: *'Makiñe bat*

berba egin dau, baia ez dau ezer aumenta herriko arazon ganera).

• **barrúnta**: erderako "barruntar"-etik dator (gaur egun gitxi entzuten da hau erderaz), eta "nabaritu" esateko erabilten dogu (ad.: *'Beharren ibill ezkeron ezta hotzik barruntaten*).

• **ernéga**: erderako "renegar"-etik ei dator, baia hau bere ez dogu erabilten gaurko erderan lez, "nahigabetuta" esateko erabilten dogu (ad.: *'Itxiozu lo iten lasai ze, erraz ernegaten da ezpabere*).

• **baxa**: erderako "bajar"-etik dator; ahoskere deko berezitasun bakarra, 'x'-gaz ahoskatuten dogu-eta (ixen edo goxeti lez), ez 'j'-gaz.

Eta gaurkoz hemen itxiko dogu, nahiko luzetu gara eta. Agur!

I
Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Telletxe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoa

Tomate beteak

Hasteko goilara bategaz tomatea hustu, okela gorde. Tomatea gatz eta olio apur batekin labean 170 gradutan 12 minutuz egin. Gorde. Bestetik, zartaginean porrua, tipula, piper berdea eta azenarioa txiki-txiki zatiturik potxatu. Gero aurretik gorde dugun tomatea, perretxikoak eta txarripata egosiak gehitu, hau guztia ondo zatiturik ere bai. Honekin tomatea bete. Ondoren, tomatearen gainean aurrautz gordin bat ipini eta ogi eta gaztai birrinduarekin hautsezatu. Inguratu tomatea bakoi xerra bategaz (hau ondo lotzeko zotz bat erabiltzen dut nik). Azkenik, tomatea labean 170 gradutan 4 minutuz egin eta ondoren gratinatu. On egin! ○

osagaiak (lagun birentzat)

- tomate bi • tipula bat • piper berde bat • porru bat • azenario bat
- txarripata • aurrautz bi • bakoi xerra bi • ogi eta gaztai birrindua



itsaso arana / jolastokikoa

Prieto picudo mahatsa

Oso ezezaguna da mahats beltz hau gurean. Leon inguruan dauka bere gotorlekua. Han Valdevimbre, Oteros eta Cea eskualdeak batu eta Vino de Tierra de Leon izendapena sortu zuten. Tradizioz oso ospetsuak izan diren ardao gorriak (txinparta edo aguja apur batekin) egin izan dira beti han. Hauek egiteko *madreo* izena daukan teknika berezia erabili izan da. Eta zertan datza teknika hau? Bada fermentazioa egiten den bitartean mahats-mordoak gehitzen zaizkio muztioari. Honek ardoetan karbonikoaren iraupenean izugarri laguntzen du eta hortik datorkie ardao hauei txinparta edo aguja ikutu hori. Azkenik esan behar da *prieto picudo* bai beltzetan bai gorrietan oso indartsua dela sudurrean eta kasu bietan nortasun handiko aromak isurtzen dituela. ○



Irrintzi taberna

Irlandatik, Algorta alaitzeko prest



Argazkian, David Coe

Irlandako Waterford herritik etorri zen David Coe orain dela lau bat urte. Gustura dago gure artean, izan ere, oso gogoko ditu euskal kultura eta Getxoko herria. Eskarmentu handia dauka ostalaritzaren munduan, Irlandan zein Euskal Herrian hainbat tabernatan ibili da-eta. Horregatik, ez zuen birritan pentsatu eta Villamonteko Irrintzi taberna salgai zegoela ikustean, Erromon zeukana utzi eta hau hartu zuen: "Hasieran zaila egin zitzaidan, aurreko jabeek arazoak izan zituztelako zenbait bezerorekin; baina orain dena konpondu da eta jende asko etortzen da". Betiko jendeaz gain aurpegi berri asko hurbiltzen dira: "Adin eta herritartasun guztietako jendearentzat ateak zabalik daude".

Goizean goiz hasita eta gaueko 11ak arte kafeak, ardoak, garagardoak eta mota askotako pintxoak dastatzeko aukera dago. Udaran boka-

tak, anoak eta sandwichak eskaintzeko asmoa dauka Davidek. Gaueko giroaz ere goza daiteke: "Trago bat hartu nahi duen baina Armezina igo nahi ez duen jendeak giro lasaia aurkituko du hemen".

Hala ere, Irrintzi taberna bat baino gehiago izatea gura du Davidek: "Lekua handia da eta antzerkiak, kontzertuak eta antzeko ekitaldiak antolatzea gustatuko litzaizkide". Txalaparta oso gustuko du: "Honekin lotuako zer edo zer egin nahi dut; agian, txalaparta bat jarriko dut, gura duenak jo dezan". Kultur etxarekin zein jai batzordearekin lan egiteko asmoa dauka: "Apuurka-apurka noa. Momentuz, tabernan dauden kartel guztiak euskaraz jarri ditut eta dakidan euskara apurra enbiltzen saiatzen naiz". Badago herritarrentzako topaleku berria Algortan. ○

Bolue 3, Algorta / Tel.: 94 430 29 44

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

CAFE
Usategi
ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T: 94 491 02 93

GOZOLABEA
galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



ARTAZA ETXEA
jaketxea
• gozariak
• txuletoia • makailua
• arrain freskuak

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



**Asador
Goieztia**



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gazez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

etorri eta ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

ITXASGANE

prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN

"Gozaki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarreriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

[horoskopoa]


<p>URA</p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Minberakor eta suminkorregi zabilzta azkenengo bolada honetan eta hurrengo egunak onak izan litezke jarrrera hori alde batera uzteko eta ondo pasatzeko. Diruari dagokionez behintzat, ezin kexatu!</p>	<p>OTSOA</p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Zeure ausardiak fruitu onak eman ditu, goza ezazu momentua baina burua galdu gabe. Diru proiekturen bat baldin baduzu aurrera jarraitu, izarrak zure alde dituzu eta. Ez zara damutuko!</p>	<p>ADARRA</p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Bikotekideari zugaz ezkon dadin eskatzekotan zaude? Baietz esango dizula ziur zaude? Nik egoeraren ikerketa sakona egingo nuke eta baikorra izango balitz, aurrera txo! Egin bihotzak eskatzen dizuna.</p>
<p>AITZURRA</p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Udako jaietan murgildu gara daborduko. Ze arin pasa den ikasturtea! Hondartzara joateko garaia heldu da, erlaxatzeko unea, lagunagaz gozatzekoa. Urtaro hau maite duzu, askeago sentitzen zara, zoriontsuago. Negua laster dator berriro...</p>	<p>HOSTOA</p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Gauko izarra zara, dantzalekuko erregina. Jaietan guztiek gura dute zugaz egon eta egusentian zure ondoan esnatu. Baina kontuz, urteak badoaz aurrera eta erregin berriek beteko dute zure lekua. Kontuan hartu gomendioa mesedez.</p>	<p>EGUZKIA</p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Zorionak zuri, zorionak zuuuruu!!! Orain dela gutxi zure urteak izan dira. Zer oparitu dizute? Maitasuna izan bada, hobeto! Zure begi distiratsuek zure poztasuna islatzen dute. Urteak betetzek ez al zaitu ardurutzen?</p>
<p>GARIA</p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Krema asko eman, zuri-zuri zaude eta. Hondartzara joatea ondo dago, baina azala jagon beharra dago. Kantzerra gaur egun daukagun arazo larrienerariko bat da eta eguzkiaren gaur egungo indarra ez da txantzetarako gauza. Kontuz gero...</p>	<p>LASTOA</p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Denboraldi bat bakarrik eman beharko zenuke. Jendeaz inguratuta zaude eta lantzean behin ondo dator intimitate apurtxu bat. Ideiak ordenatu eta lasaitzeko aukera paregabea daukazu oraingoan; ez utzi pasatzen, bestela damutuko zara.</p>	<p>IRATZEA</p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Azken bolada honetan ez zabilzta bat ere ondo; saia zaitetz baikorragoa izaten eta ez ahaztu garai txarrak beti gelditzen direla atzean. Atera kalera eta gozatu zure adiskideen laguntasuna.</p>
<p>META</p> <p>(Irailak 17 urriak 16) Benetan maite baduzu esaiouzu: zabaldu zure bihotza eta ea zer gertatzen den. Hobeto sentitzen al zara horrela, ezer egin barik? Kontuz diruarekin. Espero ez duzun gasturen bat ager liteke...</p>	<p>HAZIA</p> <p>(Urriak 17 azaroak 15) Gauzak ez dira beti nahi bezala ateratzen baina lasai, ez galdu gogoa eta eutsi zure bideari laster ikusiko dituzulako zure ahaleginen emaitzak. Maite zaituzten pertsonak zu laguntzeko prest daude; onartu haien borondate ona.</p>	<p>NEGUA</p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Dena kontran daukazula uste duzue? Horrela al dira gauzak? Hobe zenuke zeure burua aztertzea. Batzuetan, beti ez esateagatik, erruduna norbera da eta ez mundua. Arazorik badaukazu, eta hala da, lagunengana jo horretarako daude eta.</p>

mungia
OKINdegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK

1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Ezker eskuin

1. Azala kolorez alda dezaketen narrastiak.
2. Odoldu.
3. Edari bizi.
4. (Fam.) Belarri, sudur eta laringeen eritasunez diharduen medikua. Kontsonantea.
5. Letra grekoa. Milla kilo. Dauka.
6. Iodoaren ikurra. Gabezia. Rutenioaren ikurra. Kontsonantea.
7. Barazki mota. Ahariaren emea.
8. Lurreko poloak.
9. Zakoteak. Bihia, garaua.
10. Atzikia. Musika mota. Rubidioaren ikurra.

Goitik behera

1. Kolonia bati dagozkionak.
2. Usaimenaz sumatu. Antzinako eskandinaviarren letra mota.
3. Hegaztien aho gogor eta irten. Euskal Herriko ibaia.
4. Nafarroako ibarra, Zangozako merindadean.
5. Errenkada. Ukapen.
6. Edozein. Ez eme.
7. Ogi, hitz elkarteetan. Bizk., lamuak.
8. Trebe. Herri, hiri.
10. Zibilizazioa. Abederako lehen letrak.

Soluzioak

K	A	M	A	L	E	O	I	A	K
R	B	K	O	R	V	K	A	V	
V	E	L	V	K	O	N	V	A	
A	L	V	K	O	N	V	A		
V	A	K	O	N	V	A			
A	R	B	I	A	R	D	I	A	
R	U	R	V	Z	E	I			
U	D	A	N	O	T	N			
T	O	N	I	R	O	T	O		
L	E	I	K	O	R	E			
U	D	A	N	O	T	N			
K	A	M	A	L	E	O	I	A	K

asmatu eta irabazi > **bi lagunentzako bazkari bat**



Nor da?

- Lanpostua utzi berri du
- Aznar eta Bushen laguna
- Orain katoliko bihurtuko ei da

- > Aurrekoaren erantzuna: Uxue Barkos
- > Irabazlea: **Carmen Begoña Fano* (Getxo)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Usategi
kafetegia



Usategi parkea z/g, **Algorta**
Telf: erreserbak: 94 460 64 13



JUANFRAN POMPOSOK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Doña Pacari omenaldia 1969an

Francisca Igartua "Doña Paca", Algortako San Inazio eskolan lan egin zuen luzaroan eta, esaten dutenez, oso atsegina eta maitagarria zen. Horregatik edo, bere ikasle ohiek (35 urte lehenago ikasle izandakoek), ez zuten sekula ahaztu eta bera erretiroan zegoela omenaldia egin nahi izan zioten. Triki Kamiruaga eta Angel Alonso izan ziren ekimenaren bultzatzaileak. Bestetik, argitu behar da Doña Paca mutikoen maistra zela.

Omenaldiaren egunean, eguerdiko ordu bietan zerbait hartzeko lotu ziren eta gero Algortako Gwendolinen bazkari ederra egin zuten; hantxe aterata dago goiko argazkia. Bazkalondoan oroigarria oparitu zioten.

Doña Paca, plentziarra jatorriz, urte askoan Algortan bizi izan zen, Konporte kaleko 16. zenbakian. Bere azken urteak Portugaleteko zaharrentzako egoitzan eman zituen. Getxoko Udalak ere 100 urte bete zituenean egoitzan bertan omenalditxo eskaini zion. ○

1. **lerroa:** Juan Cajigas, Luis Torrijos, Francisca Igartua "Doña Paca", Valen Pomposo, Jaime Martinez, Nicolas Gerediaga.
2. **lerroa:** Juan Luis Arrieta, Angelin Izkoa, Bilbao, Anselmo Bidegorri, Beni Zarraga, Visen Zarraga, Jon Pomposo, Tomas Etxeandia, Eusebio Uribarri, Ernesto Alcibar, Vicente Mota.
3. **lerroa:** Manu Hormaza, Rafa Mota, Paco Arzubiaga, Felix Yañez, Ignacio Canales, Juan Ramon Igual, Angel Alonso.
4. **lerroa:** Isidro Bidaurrezaga, Triki Kamiruaga, Antolin Llona, Pedro Arondo, Fausto Basozabal, Antonio Ayala, Hilario Urkiza.
5. **lerroa:** Jose Basagoiti, Julian Canales, Juan Jesus Sarria, Juanjo Zubiaga, Jose Luis Cajigas "Paquirri".



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

MIRENTXU PURROY > Kazetaria

“Mendia maite dut; leku irekiak aurkitzen saiatzen naiz beti”

Testua: **Maitane Nerekan**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Bi hitzetan defini daitekeena ez da pertsona.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Batean ere ez, ez naiz aktorea.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

San Frantzisko Xabier. Ez santua izateagatik, baizik eta ekialdea aurkitzeagatik. Garai horretan guretzat erabat antitetikoa zena ezagutzera eman zuen.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Ez naiz erritu zalea eta ez ditut nire ohiturak deskribatzen.

Aitor dezakezun bizio bat.

Mendia maite dut. Toki irekiak bilatzen saiatzen naiz beti.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Indian egon nintzen urte eta erdiz. Bueltatzea gustatuko litzaidake, zertan aldatu den ikusteko.

Orain zarena izango ez bazina zertan gustatuko litzazuke jardutea?

Orain naizena izango nintzateke: pertsona berdina, leku berdinean jaioa, guraso berdinekin eta neba-arreba berdinekin. Oso gustura nago.

Irakurri duzun azken liburua?

Las pequeñas memorias, Jose Saramagorena. Lan zintzoa da. Bizi duena modu garbian bildu du, gehiegi apaindu barik.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Dena barkatzen dut, ez naiz batere herratsua. Hala ere, bat esatekotan, hipokresia aukeratuko nuke.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Nafarroako Pirinioa. Gelditzen den leku garbientakoa da. Zaila da Iratiko oihana bezalako tokiak aurkitzea gaur egun. ○

LABURREAN— Kazetaritza eta filosofia ikasketakaldi berean egin zituen Mirentxu Purroy iruindarrak. Psikologian ere lizentziatua da eta New Yorken zinemagintza ikasi du. *El silencio de los inocentes* eta *Detrás del tiempo* luze-metraiaren filmaketan parte hartu du, beste askoren artean. Bestalde, komunikabide ugaritan lan egin du. “*Punto y hora*” saioa sortu zuen eta *Egin* egunkariko zuzendaria izan zen. 1999az geroztik, ETBko 2. katean domekero ikus dezakegun “*Mundo.hoy*” saioa zuzentzen du. Munduko errealitatea erakusten digun kazetaritza ikerketa saioa da hau eta ia osotasunean bere kabuz prestatzen du.

UKren fruten posterra

Zelan eskuratu?
Zatoz UKren bulegora*, eskatu eta eroan!

* bulego ordutegia: 10:00-15:00

Ezaugarriak


Neurriak: 40 x 70 cm

Zer dakar posterrak?

Fruten izenak
(euskaraz, gaztelera,
frantsesez eta izen
latinez) eta eurak
jateko sasoiak.

Argitaratzailea:
UK aldizkaria

Babesleak:
Getxoko Udaleko
Euskara Zerbitzua
BBK



Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 Algorta GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37